

anaitasuna

1979.EKO MARTXOAREN 15 EKOA ETA APIRILAREN 1 EKOA. 379-380. ALEA.60 PZTA.



anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZAINDIA
BILBO

2/28

28 JUN. 1979

AURKIBIDEA



4. Editoriala
5. Diskoak Hamabostero. Karlos Arko.
6. Martxoak 25: Hauzakideen eguna. Euken Entziondo.
8. Euskal Herrian bizi nahi dugu. Ekatxa.
10. Ipuina baina bitzta bezain erreala. Ekatxa.
12. Hondamendira goaz. Xabier Gereño.
14. Txistu-danbolinez (II). Borja Barandiaran.
16. Euskaldun izatea, bekatu ote da? J.Ramon Bilbao.
18. Martxoak 8. Emakumearen egun internazionala. Itziar Itziar Urtaşun.
20. Hamabost egun hankaz gora. I. Zabaleta, Begoña Zia
22. Ohar laburrak.
23. Ezin deitia. J.L. Davant
24. Emakume iraniarrak aurpegi emanez. Mariasun Landa.
26. Palestindarren Kontseilu Nazionalaren Biltzarrea Damas-kon. K. Ordozgoiti.
28. Ekialde hurbileko ituna. M^a Jesus Esteban.
29. Frantziako Irakaskuntzan eliteak aurrera. M^a Jesús Esteban.
30. Nazio arazoak Sobietar Batasunean. Santi Lafitte.
31. Gizaki. Gentz.
32. Monumentu bati buruz. Mariasun Landa.
34. Zerurako bidean neure heriotzaren egunean. Karlos Santisteban.
36. Nazio alderdiaren mythoa (II) Xabier Kintana.
38. Masak ala eliteak (V). Galtzagorri.
40. Lau Filme. Joseba Sarrionandia.
42. Bost "maria" euskal eliza batentzat. Paulo Agirrebaltzategi.
44. Komikia. Xabier Etxenike.
46. Iberduerok informatu egiten du (sic). Ramon Garai
48. Garapen hitza promozionatu nahiz. J.R. Etxebarria
49. Gurutzegrana.
50. Ardibeltz

anaitasuna

KOORDINAKETA
J. R. Etxebarria

ERREDAKZIOA
J. Llerandi, T. Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA
J. Agirreazkuenaga, M. Alvarez,
B. Atxaga, J. R. Etxebarria, Miren
Izagirre, E. Knorr, J. Idigoras,
J. Llerandi, E. Martin, T. Trifol,
I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

M. Alvarez, A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealdai, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebalzategi, Mariasun Landa, I. Azkoaga, J. L. Alvarez (Txillardegui), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, M. Haranburu, M. Lasas, R. Ordorika, E. Entzondo, S. Laffite, M. Pagola, K. Anakabe, J. Sarrionandia, J. J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxebarri, B. Barandiarán, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga.

MAKETAPENA

R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6
Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

Lege Gor. D. L. BI-1753-1967



Abertzale guztioi deia

Martxoko hauteskundeek indar erlazio desberdin bat erakutsi bazuten, Udal hauteskundeek aldaketa berbaieztu baizik ez dute egin. EAJ, Euzkal Herriaren lehen tokia berenganatzen du, are hauteskunde jeneralek baino boz gehiago lorturik gainera. Baina hauteskunde hauetako puntu beroena Nafarroa dugu. Del Burgo bizitza hobe batetara bidaltzeko Batasunari, 1200 botu falta zaizkio, Diputazioan Koalizioa honen beste ordezkari bat gehiago atereaz. 1200 botu horien faltaz ez dugu errudirik bilatu behar, abertzaletasuna ez baita arazo guztien arrazoa. Nafarroa Euskal Herrian sartzeko giltza PSOEek dauka eskuetan. Berak du erresponzabilitate gehiena. Bi gauza aukera ditzake. Bata integrakuntza. Bestea, jarrera guztiak gogortzea lau urtez gehiago. Eginez gero, gogortzen zaion irudi politikoa galduko du, Euskal Herria beste leku batetara eramanez eta ez diegu esango nora eramango gaituzten, beraiek buru dezatela asuntu hau. Moralki, bera izanen da erantzulea, beste batzuek agian, PSOEek daukan erresponzabilitate horren aurrean kontu gogorrik eskatuz.

Dena den, orain zertarako balio duen euskara ikusi behar dugu, zertarako konkretatu eta mamitu egiten da bilinguismoa, Herri honetako hiritarrak izateagatik edozein udaletxetan edo diputaziotan eta beren bileratan euskarara egiteko eskubiderik dugun ala ez... ulertzen ez dulenei jar dakieke itzultzailea. Berori eta ez besterik baita bilinguismoa. Abertzaleak diotenez behintzat konpromezu hori lortu beharko luteke.

Anaitasunak beraz, dei bati egiten die herri honetako abertzaleak deituriko guztioi euskaldunon eskubideak defenda ditzaten, horretarako bat, leku eta erakunde ofizial guztietan euskara erabiltzeko eskubidea izanki. Bestaldetik, hiltzen gaituen diglosia honetatik salbu irteteko soziozionalabide bakar bat topatzen dugu, zera, komunikabide guztietan parte hartzea eta bereziki TELEBISTAN, honetarako euskaraz eksklusiboki erabiliko duen erakundea antolatuz.

Ingelesez, frantsesez edo gaztelaniaz dauden pelikulen doblaia sinpleak sei hilabete barru diglosiatik aterako gintuzke. Bilinguismoa nahi duenak ba dauka orain egiazko giltza. Benetako bilinguismo bat nahi ez duenak eska dezala soilik euskararen irakaskuntza eskoletan. Gogor ditzagun bi gauza. Bata, gure seme-alaben egoera diglosiko nazkagarria ikastola gehienetan. Bestea, zera, guk ere greziera, latina eta frantsesez estudiatu genituela eta guretariko ia inork ez dezake berberaz hitzegin.



**"Bizitzako Gauzak"
SAKRE
Elkar ELK 37**

Gaur arte euskal disko-gintzaren bidea argitu duten planteiamenduekin apurtzea exijitzen duen belaunaldi "abertzale" berriaren premiak betetzeko joera nabaria da. Zenbait jendek "erroilu eta martxa" nahi ditu eta berberauek nortasun euskaldun baten bidez ematen bazaie askoz hobea. Talde horientzat behintzat erdi erantzun bat daukagu: Berauxe "Sakre taldea".

"Bizitzako gauzak" delakoaren tematikak, bizitzak sortzen dizkigun frustrazioen gaindipenaren prozedura planteiatzen du eta hori egiteko bidea, diskoari tematikari begira behintzat, inguruak kondizionatzen gaituen gauzetaz kontsideratzea izan daiteke proposatzen diguten bidea.

Lana, monografikoa izan nahi du baina musikak batzutan apurtzen du izannahi hori. Dena den, "rock-kaletarra" osoturiko azken talde hauek egiaztatu nahi duten errealitatea da, hau da, musikaren bidez bizitzaren hitzaldi soziala errepikatzen dute.

Indarra duen Euskadiko lehen taldea Sakre da. Hala ere, nortasuna falta zaie. Itoitz, Koska eta Errobik dutena beraz, berauei falta. Beren lan osoa Britainia Handiko rock-eri lotzen zaio, ezberdintasun bakarra hizkuntza izanik, han ingelesa, hemen bertan euskara. Portaera honek ez du beraz beraien alde asko egiten eta Sakreren irudia pobre agertzen da. Sakreren rocka oso zirriborotsua da, berezitasunik gabe eta apalegia. Bere birtutea aldiz, zera da, nahiko arina eta askotan lirikoa dela esan dezakegu; esaterako, sinfonia eta jazz arlorantz eramanez nahi gaituztanean.

Duda barik, rock euskaraz egitea beharrezkoa da, baina urrutira joan behar da. Ez da bidezko beraz, modatik pasata dauden korrontetara joan egitea, are guttiago Estatu Batuetan edo Britainia Handian korronte berberak krisisan daudelarik hemen horretaz orain lan egitea.

Hala eta guztiz ere, Sakrek zabaltzen digun bidea estimagarria da baina tankera edo eta nortasun berezia eskatu egin behar diegu, gainera horrela eginez, gugandik, euskaldunongandik, askoz hurbilago egongo dira eta.



**Euskal Herri
dantzak
LOUIS BEHERETXE
Elkar 22**

Akordeoiak hitzegitean euskal diskasailak duen zabaltasunaz kontutan hartzen dugularik, Louis Beheretxe-ren disko honek ez digu gauza handirik erakusten.

Beheretxe fandango arloan mugitzen da ugari. Jeneroa oso komertziala izanik, ez du jaialdiaren girotik alde egiten eta daukaten linealitatearengatik hotz uzten gaituzte horrelako grabaketek.

Beheretxe-ren asmoei begiratuz, bajua eta perkusioia sartu duenez geroztik, hotsa esaterako, biziago eta ozenago lortu beharko zukeen.

Hala ere Euskal Herriaren dantzaz lan egitea positibotzat hartzen dugu baina honetarako zehaztasunik eta efikaziak parte garrantzitsu bat hartu behar du guzti honetan. Horregatik, horixe guztiori lortu ez dela esaten ausartuko ginatete.

Diskoak hamabostero

Karlos Arko

gu zergatik, "Koska" taldearen bigarren L.P. honetan bere izena letra ttikiez agertzen da diskazaletan.

Bistakoa da bestalde, "Koska"ren lan berri honek lehengokoa gainditzen duela eta honetaz konturatzeko diskoa bera entzun besterik ez dugu egin behar. Disko hau landuago eta berezituago dago; zoritxarrez ez digu diskoak talde honen posibilitate gaitaz gehiegi argitzen ez eta rock-eri buruz dituzketen intentzioak ere ez dizkigute garbi erakutsi.

Rock-etaz finkatzen delarik ez zaigu asko gustatu soinu aurrera eramateko "Koska"-k duen modua. Mamitu gabekoa da eta rock-ek dituen sustraiekin konforme ez dagoela ematen du. Bestaldetik ez zaizkigu zuzen iruditzen solistaren ahotsa, ez eta diskoari "Koska"k ematen dizkion eskemak. Ondorio gisa, baliabide gabeko diskoa, indargabeko eta batzutan erridikulua den disko bat entzuten ari garela ematen du. Azken hilabete hauetan "Koska"k jasan duen bilakuntza non amaitzen den jakin ez arren edo eta nahi baduzue hori guztiori Jean Phocas-en lan bakarra den ala ez jakin gabe "bihotzkadak" delakoan erabiltzen den tresneriarengatik pauso bat datekeela iruditzen zaigu.

Diskoaren hitzak Euskal Herriko sozial arloari dago-kie. Errobiren kasuan politika eta rock-en artean dagoen erlazioaz hitzegitean bidezkotzat hartzen bagenuen, "Koska"-ren kasuan aldiz, heldugabeko saiaketa bat dela pentsatzen dugu. Grabeena ez da hori, grabeena zera da: beren lana lagunarte herrikoi baina hestuegi bati lotzea, eta hortik atera nahiz izanez gero okerreko has-tapenak ongi analizatu beharko lituzkete.



**"Bihotzkadak"
KOSKA
Xoxoa X-11.104**

Gure musika hoberen eta exportagarrien tresnerian gizon garrantzitsu bat agertzen zaigula Euskal Herriaren esan dezakegu duda barik. Are gehiago, bere lanari buruz mintzo garelarik, soinu horiek daukaten hots propio eta joera berezi bat dela bide, eskola eta segitzaille asko ireki duela esan genezake. Berau Jean Phocas dugu. Errobi, Txomin Artola eta Izukaitzekin elkar lanean aritu ondoren Iparraldeko hotsaren inginadore hori berriro ekintzan guztiz sartuta dagoela agertzen zaigu. Dena den, eta ez daki-

Martxoak 25

Goizeko bederlatzi t'erdietan hasi ziren lehen bizikletariak; Zornotzako taldean gutxi ziren eta martxa onean heldu ziren Basaurira. Bilboko parke-rainoko zatia astiroago egin behar izan zuten, Basaurin jende pila bat batu baitzitzairen. Zati honetan gainera, txantxetan zebiltzan batzu ba ziren; aldatz beheretan frenorik gabe zetorren bat "Que voy" ka hasten zen.

Mungia eta Algortatik jende askorik etorri ez bazen, Bilboko parkean 1.500 inguru batu zen ibilaldiaren azken zatia egiteko; Errekalde, Abusu (La Peña), Otxarkoaga, eta Uribarretik Arenaleraino. Hauzo hauetan zehar pasatzean, jendea polito animatzen zen. Trafikokoek ere ondo lagundu zuten. Lagundu ez zuena haizea izan zen, bat baino gehiago erori baitzen beragatik. Euri pixka bat ere egin zuen, gutxi.

Arenalean, hauzategi elkarteek eta beste taldeek jarririko poster eta paperak haizeak eraman zituen. Baina tira... Musika kioskoaren inguruan mahaiak eta argazkien erakusketak jarri zituzten. Hauzategi bakoitzak bere arazo larrienak azaltzen zituen. Zabala, lokalen falta; Gure Etxea, Iturrialdea, Errekalde eta Basaurikoen erreibindikazio gehienak, udalaren herri kontrola, berdeguneak eta polikiroldegiak. San Francisco hauzo elkarteak kamioi handi bat eroan zuen erakustegitzat, uraz duten problema agertarazteko.

Egun hau, hauzo elkarteek udal hauteskunderen aurrean, antolatutako debate eta ekitaldiei amaiera emateko prestatu da. Jendearen komentarioak entzun besterik ez dago, honelako agerpenak jendearen hiritar kontzientzia piztu egiten dutela ikusteko.

Medikuntzakoak ere hantxe zuden, Lejoako ospitalearen irekitzea eskatzen. Basaurikoek ere beren anbulategia zabaltzea eskatzen dute. "Asociación de Gitanos de Vizcaya"-k: "karitaterik ez dugu nahi, justizia baizik" zioen. Argazki hunkigarriek bizi diren kondizio eskasak salatzen zituzten.



Pilar Careaga, Bilboko udalaren irudi zaharra.



1.500 bat lagunek egin zuten azken zatia.



Bilbo berrian toki bat zor zaio udal bandari.

Hauzakideen eguna

Nuklear zentralen aurkako komiteek propaganda handia egin zuten. "No passess de nucleares, tio". Terrorismo nuklearraren aurka eta biziaren aldeko pankarta batekin eta disfrazaturik paseiatzen ari zen talde bat ere ba zen. Nuklearren aurkako koordinadorakoak ere ikusi genituen handik.

Konparsak ere agertu ziren, Atxurikoa, Moskotarrak, bat aipatzekotan, Otxarkoagakoa, oso giro ona sortu baitzuen; alkate, zinegotziak, idazkaria, goardia municipalak, apaiz eta guzti zeramatzen eta kalean zehar ple-noak egiten zituzten. Eskola publikoaren arazoa ere agertu zuten.

Bilboko banda municipalak bere saiotoxa eman zigun labor eta polito. Hamabi t'erdia inguruan, bertsolariak Muxikako Jon Enbeita eta Deunoro. Zazpina bertso bota ziguten, ez zen ongi entzun, baina zatitxo hau behintzat ulertu genien:

**Herri behekoak alkartutzeko
ia ba gendun garaia
agintariei eman daiegun
behin ta betiko amaia**

**txirinduletan Bizkai guztitik
dirade hemen zaliak
guztiak batu ta bildu gara
Bilboko Arenalian.**


Kioskotik aurkezlariak ekitaldiaren zergatia azalduta gero, hauzo elkar-teen zeregina hauteskunde hauekin ez dela amaitzen esan zuten, etorkizun-ean ere, hauzakideen ordezkaritza zuzena bultzatu beharko baita.

Eta parentesia egiten dugu hemen, paradoxa bat da eta, hauzo elkartekoek ibilaldia bizikletaz egiten zuten artean, PNV-koak hainbeste kotxez pasatu baitziren beren alderdi-arentzako propaganda eginez.

Haur pila bat ibili zen tipi tapa beren bizikleta txikiekin lasterka. Ordu batak inguruan udal faxisten hiletan parodia hasi zen. "Comicos de la legua"-koek prestatu eta antzestua. Pilar Careagaren gizairudi handi bat kontzejal faxistek lagundurik kioskora hurbildu ziren kalez kale batez, eta hantxe, oso modu apropos



Otxarkoagako Konparsak jai giroa sortu zigun.



Hauzategi elkarten asanbladak egin zuten antolakuntza.

"No passess de nucleares, tio", bestela amerikanoak begira itzazu.



batean eta ironia handiz, hauzategia- ren problema nagusiak agertuz joan ziren. Udalaren burokratismoa ere salatu egiten zen: "Ha pasado por el pleno, por la permanente, por el pleno de la permanente, el informe preventivo a la asesoría jurídica en orden con el suplico del sello..."

Gero kalez kale bat egin zen eta nor bere etxea, beno bat adibidez, Javi Agirre Muxikakoak, bertaraino joan behar izan zuten berriro bizikleta- taz... Aupa hi! gutxi dok hori eta...

Txantxan

Euskal Herrian



Valensolerantzeko gure bidaiaren berri eman nizuen azkenengo zenbakian. Bidaia hartan ez genuen errefuxiatuokiñ hitz egitea lortu. Egun batzu geroago lortu genuen, eta honetan ematen dizkizuet haien hitzak.

Arrarotzat hartuko duzue, seguraski. Gure errefuxiatuak ez daude Valensolen orain... Baina orain, egoera larriagoa da, errefuxiatu guztioi kendu diete Ipar Euskal Herrian bizitzeko eskubidea. Ez dago euskaldunontzat errefuxio-eskubiderik estatu frantsesean, eta horrexegatik erabaki dut hau idaztea.

Martin Apaolaza eta Mikel Goikoetxea Marseillako gartzelan daude. Haien extradizioa eskatzen dio gobernu espainolak frantsesari, eta bai beste bion ere: Angel Maria Galarraga Mendizabal eta Jose Ignacio Gabilondo Agote.

Apala egoera berberan zegoenean, Euskal Herriak salbatu zuen mobilizapenen bidez... Zer egingo dugu orain?

—Zenbat zaudete hemen gaurregun?

—Beno, orain hamazazpi euskal errefuxiatu politiko gaude Valensolen bizitzera behartuta.

—Dirudienez, prentsak dioenez, ez zarete denok une berean deportatuak izan; taldeka etorri omen zarete. Nola izan da hona etortzearen bilakaera?

—Beno, urtarrilaren 30ean hamahiru gure etxeetan harrapatu gintuzten, eta beste laurok polizia frantsesak jarritako bide-kontroletan.

—Antza denez, deportatuen kopurua gehiagotzeko asmoa zuten. Honetaz zerbait ba dakizue?

—Baietz uste dugu, polizia beste etxe batzutara joan zen eta; baina jende hori aurkitu ezinean, ezin izan ditu hona ekarri.

—Gendarme frantsesek nola atxilotu zintuztetan?

—Beno, azken biok kontrol batetan atxilotu gintuzten eta bidaietan tratua nahiko ezgizakorra izan zen, gauean batez ere, esposatuta eduki gintuztela eta kate batez lotuta, guk hanka ez egiteko edo...

—Zuen ustez, polizia frantsesak legearen gainetiko jokaera jaso al du, ilegalki jokatu al du?

—Jakina, ilegala dela, bai gurekin hartutako jarreran, bai etxeetan sartzean, etab.

Hemen, fisikoki, ez gaude txarto; baina gobernu frantsesak oso ondo jokatu du baza hau, gu Herriarengandik deslotzeko, egun bizitzen duen egoeratik eta denetik deslotuta edukitzeke gu, bai familiarengandik, bai lagunengandik... Herriarengandik.



Eta, eman nahi izan dioten irudi publizitarioa gorabehera, hau gartzela bat baino besterik ez da.

—Nahiz eta taldean bizi, Valensoleko jendearekin harremanik duzuela eta gainera beste sektore handiagotan ere erreakzio bat egon dela ematen du. Zer dago honetaz?

—Lehenengo hamabost egunetan nahiko bakarti egon ginen, inorekin ere harremanik eduki gabe. Baina hamabost egun hauk igarota, frantses Herriak, gobernu frantsesak hartutako neurri nahierarako hauen kontra erreakzionatu omen du. Orduan, "Co-



mité de Soutien" direlakoak sortzen hasi dira, bai gu gauden eskualdean eta bai hiri handietan: Grènohle, etab. Hauetan, sindikatu handiena denak, CFDT frantsesak ere, kazetaurreko elkarrizketatan frogatu duenez, gure erreibindikazioen alde egiten du.

"Comité de Soutien" direlakoan erreakzioaren frogaz zera dugu, otsailak 25eko eguna. Horretan, nahiz eta agintari frantsesek bost autobusei sartzea debekatu, hau da, hona heldzea debekatu, Valensoleko inguruetako jendeak erreakzio bat izan zuen eta gure egoeragatiko interesa. Horre-

bizi nahi dugu



la, gure errefuxio-estatutua errebindikatzearen aldeko jarrera frogatu da.

Batzorde hauen ekintzen artean, zera dugu: datorren igandean, Paco Ibañez, kantari frantsesen talde batekin omen dator.

—Zuen oraingo egoera argitzeko, agintari frantsesekin, harremanik egon dela esaten da...

—Beno, ba..., gu geuk ez dugu agintari frantsesekin harremanik izan. Harreman bakarrak abokatuen bidez izan dira; eta Valensoleko alkateak eskualde honetako prefetarekin eduki dituenak...

Nahiz eta harreman guzti horik, gaurregun oraindik ez dakigu gure konfinazioaren ondoren zer pasatuko zaigun. Eta ea guretzat balio duen dokumentu bakarra (errefuxio-karta) emango diguten ala ez, ez digute esan.

—Orduan, konkretuki, gaurregun zein da zuen egoera, eta, noski, beste errefuxiatu guztiena?

—Gure egoera honetan gauzarik larriena zera da, gobernu frantsesak errefuxio politikoaren estatutua kendu digula errefuxiatu politiko euskaldunoi.

Gure abokatuek neurri honen kontrako errekurtsio bat aurkeztu zioten gobernu frantsesari, eta honek erantzuna eman beharko du.

Baina kasu honetan garrantzitsuen zera da, erantzun positiboa, hain zuzen ere, estatutua birlortzea ez datzala egin diren gestio juridikoetan, eritzi publikoan baizik eta, batez ere, jendeak egin dezakeen indarrean, eta modu guztietako mobilizapenetan.

—Begi bistan dago, egoera honek berezko hainbat ondorio ekarriko duela. Zeintzu aipatuko zenituzkete orainxe?

—Alde batetik gure egoera hau guztiz sekuritate faltakoa da, estatutuak suposatzen duen babes ofizialik gabe baikaude.

Gainera, egoera honek beste ondorioz ere ba dakar: polizia espainolaren gandariek ihes egin beharko duten gudari berriek, ez dute Ipar Euskal Herrian bizitzeko garantiarik edukiko, esaterako.

Bukatzeko, zera utzi nahi dugu argi: gure lehengo egoera larriari (langabezia, guri egindako atentatuak, etab.) gobernu frantsesak hartutako azken neurria, gure zazpi lagunén extradizioa, gehitzen zaio. Horregatik, euskaldunontzat errefuxio-eskubidea errebindikatzen dugu, "EUSKALDUNOK GEURE HERRIAN BIZI NAHI DUGU" kontsignaz. Halaber, Sorian dauden gartzelatuakiko solidaritatea adierazi nahi dugu, eta Euskal Herriari, mota guztietako errepresioaren aurka burrukan jarrai dezala eskatzen diogu.

Artikuluak bukatzeko, Mikel Goikoeak eskatu duenez, Mikel eta Martinentzako guttun bat.

Ea denok animatzen garen. Gure errefuxiatuek merezi dute, guk detaile hori edukitzea.

Hona hemen helbideak:

Mikel Goikoetxea

Número 404 2- 87 A

Prisión de Beaumettes, 213

Avenue Morgiou, 13

Marseille (France)

Martin Apaolaza

Número 4403 4-112 A

Prisión de Beaumettes, 213

Avenue Morgiou, 13

Marseille (France)

Kaixo, lagun maiteok!

Gutunak milaka hartuko dituzuelakoan gaude. Euskal Herria zuekin dago. Apala ere atera genuen, egoera berberean zegoenean; eta zuok ez zarete hor luzaro egongo. Aterako zaituztegu!

Besarkada bero bat.

EKATXA

Ipuina, baina bizitza bezain erreala



Deustura abiatu nintzen atzo arratsaldean lagunekin txikito batzu hartzeko.

Hortan geundela, gazte biren arteko elkarrizketa bat entzuten hasi nintzen. Nahiko interesgarria ikusi nuen gaia zuoi kontatzeko eta neure antenak zorroztu nituen.

—Bai, mutil, geure egoera konpontzeko modu bakarra zera dugu: greba. Hori da langileen harma, eta gu langileak gara.

—Teorikoki horrela da, baina zer lortuko dugu? Gure ikasleek kurtso bat galtzea. Ez da hori metodo egokia unibertsitate euskalduntzeko. (Nire buruan argi bat piztu zen: Unibertsitateko euskarazko irakasleak dira!...)

—Baina oraingo egoera bere horretan uzten badugu, inoiz ere ez dugu behar den profesionaltasuna lortuko, eta euskararen irakaskuntza inola ere ez da normala izango. Hori ere ez da metodo egokia euskara aurreratzeko. Gure egoera larria da eta erre egingo gara. Modu honetan, hemendik urte batzutura, euskarazko irakaslea mamuta bezalako zerbait izango da: bukatu den espezie bat... (Une honetan, beste lagun bat agertu zitzaizen...)

—Kaixo, lagunok. Zer? Euskal Herria konpontzen?

—Bai, neska, beti bezala. Zer nahi duzu?

—Garagardo bat. Egarri naiz.

—Aizu, Idoia, unibertsitatean segitzen duzu euskarazko eskolak ematen?

—Bai, eta Aingeruk ere. Hortaz ari gara hitz egiten...

—Oraindik ez duzue kobratu?

—Lehenengo bi hilabeteak bai, baina gehiagorik ez. Gainera, orain esaten da azkenengo hiru hilabeteak ez dizkigutela ordainduko, dirurik ez dagoelako...

—Eta zer egingo duzue?

—Hori da gure keka. Ez dakigu nora jo. C.G.V.rengana jo genuen laguntza eskatuz eta hor ez dute ezer jakin nahi. Santamariak zera erantzun zuen: "Zazpi milioiez zenbat gauza egin daitekeen! Eta, beraz, pentsa ezazue zenbat gauza egin daitekeen: Eibarko batzokiaren berrizteak hamasei milioi kostatu du..."

—Baina, batzumentzat, euskararen irakaskuntza ez da batzoki bat bezain garrantzitsua...

—Goazen beste taberna batetara!

(Eta ni, haien atzetik...)

—Eta zuk, Amaia, zer egingo duzu datorren urtean?

—Aurton Alfabetatzea bukatzen dut eta datorren urtean euskarazko klaseak emateko asmoak nituen. Baina ezin izango dut. Ba dakizue ni Lekeitiokoa naizela, eta hemen bizitzeko dirua lortu behar dut... Beste lanen bat bilatu beharko dut...

Nik euskarazko klaseak ematea nahiago nuke, gure Herriaren gaurko egoeran irakasleak premiazoak dira eta, baina gaurregun euskarazko irakasleak paria batzu baino gehiagorik ez zarete gizarte honetan. Idoiak esan duenez, bere burua abertzaletzat ematen duten "agintariek", paria izatera kondemnatu zaituztete...

—Niri behintzat ez dit ardura euskarazko klaseak dohan emateagatik, lehen horrela egiten genuen eta... Baina lehen, gure izenean egiten genuen. Gure Herriak bere hizkuntza birpizteko darman burrukan, eta gure kultura zapaltzen zuten erakundeak, unibertsitate egitura gure kasuan, botatzeko urrats bat ematen. Baina, gaur, diotenez, euskara ofiziala da, unibertsitateko agintariak demokratik bihurtu omen dira

aspaldi honetan; eta, horrexegatik, edo behintzat antza hori emateko, hain euskalduna den unibertsitate honetan, euskarazko klaseak ematen dira. Baina, noren lepoan? Euskarazko irakasleak soldata ordaintzeko ez dago dirurik... Zergatik ez ziguten hori lehen momentutan esan? Egunkarietan euskarazko klaseen berria zabaldu zutenean, zergatik ez zuten gure egoeraren berri ere eman! A! Aurpegi demokratikoa eman beharra...

—Niretzat berandu da. Euskarazko klasea noa...

—Agur, Amaia. Gu ere ba goaz...

Eta zer, neska. Zein irtenbide proposatzen duzu? Prest nago zure aginteari berehala betetzeko...

—Desperaturik zaude, Aingeru? Ez da normala hau txantxetan hartzea...

(Mutila barrez, neska haserre bizian...)

—Josu Elorriagak behintzat desesperatuztat hartzen nau...

Baina ez haserre. Ez dut txantxetan hartzen... Ez dut bide argirik ikusten eta nahiago dut barre egitea, negar egitea baino...




Gauza bat ikusten dut argi: guk bakarrik ez dugu ia ezer lortuko, nahiz greba egin, nahiz arrosarioa errezatu... Gure ikasleen laguntza behar dugu; Herri osoaren laguntza. Ordua da Herria euskararen alde mobilizatzeke!...


—Horretarako Herriari gure egoeraren informazio zuzena eman beharko diogu...

(Problema hor dugu... Zer egin dezakegu, irakurle?)

—Ekatxa! Beti bezala, ametsetan... Arratsalde osoan ez didazu kasurik egin...

Ekatxa





Petrolioaren arazoa azken urteotako krisiaren oinarrian dago.

Hondamendira goaz

Lehen ere erabilia dut ANAITASUNA honetan krisiaren gaia eta, tamalez, orduan profetizatu nuena betetzen ari da: Euskal Herrian lanaren arazoa puntu oso grabe batera heldu da.

Ni ez noa orain demagogia egitera. Ez dut nahi teoria hutsetan ibili. Beraz, errealitatean oinarrituko naiz, pertsonalki bizi dudan problematika azalduz.

La Aeronautica, S.A. fabrikari lan egiten dut, eta Deustuko Erriberan, Nerbion hibiaren ertzean dago. Gure inguruan, dena fabrikaz josirik


dago.

Lehen, 600 langile ginen, eta orain 400 soilik, Gainerakoak, irteten joan dira, batzu beren borondatez eta besteak derrigorrez parora. Gure lantegian tableru kontraxapeatuak egiten ditugu, eta lehen materia Gineako enborrak ziren. Ginea, Espainiako kolonia izatetik libre izatera igaro zenean, Espainiako tableru fabriken gainbehera hasi zen. Metropoliak kolonia esplotatzen zuen, eta beltzei soldata urri batzu ordainduz, enborrak prezio merkean ekartzen ziren.

Gero petrolioarena etorri zen.

Gero demokrazia, eta kapitalisten Suitzarako diru ebasioak. Guzti horren ondoren bezala, egoera ekonomikoa gaizkoatu egin zen, gure fabrikari ere. Urtebete "regulación de jornada" delakoarekin egon gara Jabeek fabrika hitxi nahi izan zuten eta manifestazioak eta entzerronak egin genituen. "Suspensión de pagos" sortu zen. Interbentzio judiciala. Orain, Eskontrillas-en akzioa, Babcock-en ibili den bera, azterketan bat egiten ari da. Ba dira hamar bat egun makinak gelditu ditugula, lehen materia erosteko diruaren faltaz.

Greba luzeak eramaten ari dira langileak aurten.





Euskal Herriko ekonomiaren egoera serioски aztertu beharra dago.

Maiz asanbladak egiten ditugu. Atzokoa (lan hau martxoaren 14an idazten dut), "Rosario de la Aurora" bezala bukatu zen. Goizean lankide bat hurbildu zait eta komentatu dit: "Erdiragarria da makina geldien alboan langileak kartetan, jolasean ikustea"...

Kondatu dudana nik lan egiten dudan fabrikaren kasua da. Alboan, Mefesa dago. Hemen ere hainbat egun dira greban daudela. Atzo kolpeak egon ziren. Jarraian, Tarabusi, hau ere hitxita. Aurrerago, Elorriaga, krisi larrian. Eta Saema, krisian ere, eta Artiach, eta beste hainbat eta hainbat.

Lanorduetatik kanpo Bilboko kaleak korritzen ditudanean, beste mundu batean nagoela iruditzen zait. Bizitzak aurrera egiten du, ezer gertatuko ez balitz bezala, dena normal balego bezala. Eta inoiz egin dudan gogoeta etorri zait burura: hildakobaten familiakoek kontrast bortitz bat sentitu behar dute kanpasaindutik

etxeratzean herriko giroak axolagabeki, beren dolorean parte hartu gabe, aurrera jarraitzen duela ikustean.

Baina, nahiz eta ezikusiarrena egin, problema hor dago, bere larritasun izugarrian. Eta eztanda egingo du. Ekonomia ez da jostailu soil bat. Ekonomian oinarritzen da gizartearen bizitza. Beraz, gure etorkizuna, hor oinarritzen da, ekonomian. Eta nola arraio jaso daitezke fabrikak lan egin gabe? Nola superatuko dugu krisia, edo bigunduko, lan egin gabe?

Euskal Herrian hondamendira goaz. Eta nik ulertu ezin dudana da nola hainbat lantegitan, langileak axolagabeki grebara doazen, edozein atxakia dela. Horrekin, fabrikak gehiago hondatzen dituzte. Greba, noski, langileriaren eskubide bat da, baina azken eskubidea. Lehenago, beste presio erak erabili behar dira. Edozein atxakiaz grebak egitea, sekulako astakeria da, langileen benetako interesen kontra joatea.

Nik ba dakit sistema kapitalista bere azkenetan dagoela, azkenean sozialismoa izango dela soluzio bakarra, krisi hau gaindiezina gertatuko zaiola sistema kapitalistari. Baina Euskal Herrian faktore bereziak ditugu, egoera gaizkoatzen. Norbaitzuk hondatu nahi gaituzte, eta guk jokoak egiten diegu.

Euskal alderdi politiko eta sindikatuetako gidariek erantzukizun larri bat dute Herriaren aurrean. Fabriketan bizi dugun egoera anarkikoan, diziplina humano baina serio bat ezarri behar da. Inbertitu nahi ez duten kapitalistei beren fabrikak errekisatu eta beren ondasunak egin behar zaizkie fabrika haik martxan ipintzeko. Libertatearen izenean ezin permiti daiteke ez langileen anarkia ez kapitalistena. Hori ez litzateke libertatea, egoismoa baizik.

Euskal Herriko ekonomiaren egoera serioски planteiatu behar dugu, gehiago luzatu gabe.

Xabier Gereño

Txistu-danbolinez (II)

Ak.: Ez da asko Bizkaiko Aurrezki Kutxak lagundurik Txistu-Konposaketaren lehiaketa ospatu dela.

J.M.-k: 76tik gabiltza gisa horretako lehiaketak antolatzen. Hemen-dik aurrera Aurrezki Kutxari eskerrak urte biro ospatuko da. Txistu-bandarako idatzitako obrak sartzen ziren. Donostiako Txistu talde esperimentalak sortu zenetik tankera horretakoak ere sari daitezke. Hau honela delarik, aurtengo lehiaketan bigarren saria talde esperimentalerako idatzitako obra batez irabazi du J. I. Anso-renak, lehenengoa J. M. González Bastidarena izanik.

Dena dela harrigarriena zera izan da: Euskal Herriaz kanpoko goimailako konposatzaile askok parte hartu izana. Bik Madriletik bidali digute obra bana, eta Bartzelonatik beste batek. Haietako batek ez zuen inoiz txisturako idatzi izan. Geure aldetik, noski, ahal eta musikalari gehienek parte har zezaten, Espainako Kontserbategi guztietara idaztitxo batzu bidali izan gehituen, txistuaren ezaugarriak eta jotzeko teknika bereziak azalduz.

Oro har, epaileen iduriko aurkeztu diren obrak kalitate on samarrekoak izan dira.

A.k: Obra sarituak entzuteko parada ederra abenduaren 13an izan genuen. Sarigabeak inoiz entzungo al ditugu?

J. M.-K: Baietz uste dut: guri dagokigunez, aldizkarian argitaratu egingo ditugu eta haien konposatzaileekin harremanak sendotuz goaz alde batetik eta orain arte inongo lehiaketataratu aurkeztu ez diren beste batzu aldizkarian bertan ere argitaratzeko asmoa dugu, bestetik.

A.k: Zenbat obra aurkeztu da, guztitara?

J. M.k: 21.

A.k: Oso ona deritzot ideari, baina, horrenbeste musika jotzeko ba al dugu banda nahikorik?

J. M.k: Oso banda gutti dugu, zoritxarrez. Bizkaian bederen ez dut uste dozena bat baino gehiago dagoenik, eta ez da bat ere harrizko Udalek ordaintzen diena kontutan harturik.

A.k: Nortzuk osatzen dute Bilboko?

J. M.k: Zuzendari eta lehenengo txistua Boni bera duzu, bigarrena Tomás Sarazibar, silbotea Mikel Bilbaok jotzen du eta atabala Jesús Villarek.

A.k: Bizkaiko zein herritan dago banda?

J. M.k: Nik dakidala Ibargaldun¹, Santurtzen, Portaldean, Getxon, Durangon, Zornotzan...

A.k: Azkenengo Bizkaiko Txistularien elkartearen erabili ziren problemak...

J. M.k: Askok eta asko. Esate baterako txistulari askoren mordoilokeria: txarto jotzen da askotan. Egon, ba dago txistulari onik, baina txarroi entzuten zaie. Lehen txistulari trebe baten aurrean fristi-frastakook ixildu egin ohi ginen; gaur, ordea, alderantziz: ezinbestez ixildu ohi dena ona da.

Beste bat: txistua jotzeko metodo bateratu baten eza. Hori dela eta ez da harrizko irakasleen artean posizioak txarto irakasten dituenik ere egotea.



Behar bada, azakeriak jota ibili da horrenbeste, Euskal Kulturaren ekintzetan: Euskara ikasi behar zen, eta txistua jotzen ere bai, baina batzuentzat Euskara ikastea Euskalduntzen bigarrena ematea izan da, eta txistua jotzea "Bat, bi, hiru, lau" jotzen ikastea eta erdipurdika, gainera.

A.k: Bai, baina zenbat eta gehiago ikasten hasi, hainbat eta txistulari dexente gehiago sortuko da.

J. M.k: Ez da, zoritxarrez, hala gertatu. Aitzitik, ia gehienetan, txistularik kaskarrenek hoberena "estali" ohi dute, elkarrekin jotzean.

Lehen behinik behin onari entzuten genion eta galderak egin ohi genizkion geure teknika hobetzeren...

A.k: Zenbat urte behar da txistua jotzen ikasteko?

J. M.k: Nola den... ba dago hiru hilabetetan arin-arin, biribilketa eta jota mordo bat ikasi duenik, baina normalki hiru kurtsutan egiten da, lehenengo bietan danbolin gabe arituz. Nik ikasi nuenean lautan egiten ze, eta laugarrena arte ez zen danbolina ukitu ere egiten.

Tokian tokiko egoerek ba dute ere beren garrantzia. Esate baterako, Gipuzkoan danbolinaren ikaspenari ez zaio hemen eman behar izan dio-guna eman, bazterretan atabalaririk dago eta, eta hemen ez: hemen txistua jotzerakoan danbolina ere menderatu behar da.

A.k: Inork edo ezerk laguntzen zaituzte?

J. M.k: Ba ditugu babesle batzu elkartearen. Kuoten bidez laguntzen gaituzte, baina pertsonal mailan. Erakundeei dagokienez, Diputazioak nolizean behin ere. Baina erregulariki Bizkaiko Aurrezki Kutxatik, beste inondik ez, hartzen dugu diru apur bat. Aurten milioi erdi bat.

A.k: Eta... zer egingo duzue horrenbeste diruz?

J. M.k: Hiru arlotan erabiliko dugu: a) Txistularien trebaketan (irakasleak lagunduz, esate baterako); b) Txistuari buruzko iker-lanetan (egiturak, orkestrapena...); d) Gainontzeko erakunde kulturelekiko harremanetan; e) Euskal Kulturaren txistua sartuz.

Hori dela eta, datorren Apirillean mintegi bat antolatuko dugu, txistulari guztientzat Txistuaren jatorriaz, erabilkeraz, gamak, armoniaz... eta abar ihardungo da.

Amaitzeko kontzertu-estudio bat emango da.

Bitartean Aurrezki Kutxaren laguntzaz, Elkartearen gerraondoko partiturak ari gara argitaratzen, hiru liburutan...

A.k: Eskarrik asko J. M., zure jakingarriengatik. Ba dakizu ANAITASUNatik txistua lagundu nahi dugula eta urrezko belaunaldi bat opa diegula bai txistuari bai txistulariei.

Borja Barandiaran

JAKIN

**EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA**

Hiruhilabetero

Bederatzi-garren
zenbakiaren gai nagusia

**IPAR EUSKAL
HERRIA**

Demografia

Historia

Politika

Ekonomia

Nekazaritza

—oOo—

1978.ko euskal
liburugintza

—oOo—

Biolentzia Euskal
Herrian

—oOo—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak
eta harpidetza:

Gral. Mola, 23-1.º
Donostia
Tel. (943) 27 17 13

anaitasuna

HARPIDEDUNA!

Gurekiko harreman guztietarako aipa ie-
zaiguzu, zure zenbakia.

**BIZKAIA
HAMABOSTEROKOA**
Zuzendaria
X. Arzelus

URTEKO ABONAMENDUA:

EUSKAL HERRIA:	1.200	pezeta	/75	F.F.
ESPAINIA eta FRANTZIA.....	1.500	“	/93	“
EUROPA eta AMERIKA.....	1.600	“	/23	U.S. d.
Beste herri guztiak.....	1.700	“	/25	U.S. d.

ALDIZKARI hau **IRAKURRI NAHI** baduzu, bete
ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-
tara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Bankua eta kontu irekia.....Tfnoa.....



Euskaldun izatea, bekatu ote da?

Konstituzio espainolak honela dio bere hirugarren artikuluan:

"1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen *el deber de conocerla y el derecho a usarla*." (nik jarri dut kurtsibaz.)

Gero bestelako punturik aipatzen bada ere, puntu hau euskararen aurkako diglosiaren instituzionalizazioa da

segur, zeren eta horren arauera, gaztelania soilik dakitenek ez baitute inolako obligaziorik beste ezelako hizkuntza ikasteko, eta gainera, berearekin bakarrik edonora joan baitaiteke.

Erdaraz ipini dut apropos, hauxe baita Espainian zehar onartu den testua, eta bestalde, faltsua bailitzateke zenbait lekutan agertu den euskaraz-

ko testua —itzulpena halebgi— jartztea, ondoko bi arrazoiengatik guttinez:

—Lehenik eta behin Euskal Herriak konstituzio hori onartu ez duelako (hirutariko batena baino ez baita aldekoa izan). Gainera, erretxazua handiagoa izan da eskualde euskaldunenentan.

—Eztabaida guztiak erdal textu-

ren gainean egin direlako eta legea beronen arauera egin delako.

Madrilera batzuk presaka eraman duten Estatutuan ere, kalamatika luzea bota ondoren zera adierazten da: "Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua". Konstituzioaren textuarekin batera irakurtzean, eta Estatutuak konstituzioaren mugen barnean eginga izan behar omen duelarik, adjektibo bat jartzea ahantzi zaielakoan nago, eta "lengua" jarri ordez, "lengua castellana" adierazi nahi dela susmatzen dut. Zeren eta, zertarako itxurak egiten gera?: euskara, gailegoa, katalana, ... egiten dugunok, automatikoki geratzen baikara diskriminaturik. Gaztelania soilik dakitenak beti ere jaun eta

gabetasuna nolabait azaltzeko, adibide bat jarriko dut ipuin gisa, beti ere adibide eta errealtatearen arteko analogiaren mugak salbatuz.

"Haur batek oso ongi jokatzeko zuen palaka eta partidu guztietan garaile ateratzen zen. Bere etsaiek eskuak moztu zizkieten eta horien ordezkari esku artifizialak ipini. Gero, lagun itxura eginez, berekin palaka egitera gonbidatzen zuten, oso "maitarriak" eta "atseginak" baitziren. Orduz gero, partidu guztiak galtzen zituen".

Hori gertatzen zaigu gutti gorabehera. Lehenik eskumotz utzi eta gero eskuzabalak izateko eska. Eta gu, koitadu halakook, eskuzabal izan nahi arren, eskumotz izan behar.

errepresiboak hartzen dira (erizainek ba dakite zerbait honetaz).

— euskaraz egiteagatik, Espainiako tribunalen aurrean defentsarik gabe geratzen da (Gasteizeko istorio hor dugu).


— ikastolek era askotako trabak dituzte.

— ez da elebitasun-dekretu serioarik atera nahi.

— erdara guztioi derrigorrez irakasten (eta exigitzen) zaigun bitartean, ez omen da zilegi euskara EGBko plangintzan obligatorioki sartzea.

— euskaraz idatzirik gutunak atzerantz botatzen dira.

— eta abar, eta abar (bakoitzak bere gustura osa dezake zerrenda hau, segur bainago, beste puntu pilo



jabe. Besteek ikas dezatela!

HITZ HUTSEKIN EZ DA EZER KONPONTZEN

Problema latza dago hizkuntza biren artean, edo zehazkiago esateko, hizkuntza desberdin biren mintzatzaileen artean. Eta problemari guztiz soluzio asimetrikoa —nahiago baduzue, diglosikoa— eman nahi zaio, bietako baten kaltetan. Alferrik da, Estatutuan, neurri antidiglosikoak hartuko direla esatea, oinarrian eta alde zuzenetik neurri horien kontrako muga batzu jarri badira. Hori paper errea da.

Antisimetria hori adierazteko eta neurri antidiglosiko horien funts-

BETI BEZAIN GAIZKI GAUDE

Hizkuntzaren kausaz inor ezin izan daitekeela diskriminatua izan esaten den uneon,

— Euskal Herrian ikusi eta entzuten den telebista, guztiz erdalduna da.

— euskaldunok ez dugu euskarazko kanale miserable bat ere telebistan.

— irrati euskaldunik ez dugu (zertxobait euskaraz egiten duen irratiaren bat badugu ere) eta urrun dago irrati publiko euskalduna.

— euskaraz egiteagatik, polizia hil-mehatxua egiten dute (bestela Montzoni galde).

— euskaraz egiteagatik, neurri

bat dituela eta).

ONDORIO MODURA

Zer demontre, ba! Arrazoia dute Madrilan. Bai! Orain arte konturatu ez bagara ere —agian gure artean apez gorri (sic) gehiegi dagoelako—, BAI, euskaldun izatea bekatu da. Bekatu larria, grabea, mortala gainera. Horregatik erdaltzaleek ongi egiten dute. Eta bekatu hori konfesatzen dugunean penitentzia jartzen digute. Gure salbaziorako omen.

Erdara egitea, oster, ez da bekatu. Zer pentsatzen dute, ba, euskaldun zorook?

J. R. Bilbao

1979. go martxoak 8 Emakumeen Eguna

Aborto librearen aldeko

Emakumeok ere ba dugu geure eguna. Ez gara bakarrak bestalde; gizarte honetako edozein pertsona multzok ba dauka "bere eguna" edo eta bere patroia: Bazko igandea

loturak nazio eta estatu mugak gainditzen ditu eta.

Baterako edo besterako, guztiok behar dugu geure egun berezia eta elizak ere jaso du behar hau, bere

hau.

1908. go martxoaren 8an, New York-en, Cotton lantegiko 129 emakumeak, lantokian sartu ziren bere erreibindikapenak lortzeko indar egitearren. Nagusiak, atek hitxi zituen eta lantegiak su hartu zuen. Bertan hil ziren emakume guztiak. Orduan langile mugimenduak ez omen zion garrantzi handirik eman gertakizun honi.

Bi urte geroago, Klara Zetkin-en proposamenez, martxoak 8, emakumeen egun internazionala izendatu zuten.

...AREN EGUNA, ...EN URTEA, ETA NOREN BIZITZA?

"Egun" hauek, beren alde negatiboak ere ba dakartzate. Batzuetan kontzientziak garbitzeko edo lasaitzeko aukera bat besterik ez da. Honek egun hauetan, emakumeari buruzko berriak nonahi agertzen dira eta gizarteak ondo onartzen ditu "pasatzen ez badira", "beren eguna da...". Eta eguna bukatzean, aurrean, beste urte bete lehen bezala jarraitzeko.

Baina beste zentzu bat ere eman diezaiokegu martxoaren 8ari. Urte osoan barru eramaten dugun borrokaaren sintesisa egiteko une egoki bat izan daiteke eta bestalde, esnatzaile bat ere, erdi lo edo nekatuak hartzen bagaitu.

1978 - MARTXOAK 8 - 1979

Ihaz izan genuena eta aurtengoaren gonbaraketa bat eginez, mugimendua eramaten ari den bide nabariagoa agertzen zaigu. Urtetik urtera, lehen "emakume langilearen eguna" zena, "emakumearen eguna" ari zaigu bihurtzen. Eta honek zera esan nahi du, emakumeok gizarte patriarkal honetan zapalduak gaudenez gero, interes objektibo berdina ditugula azken batean eta gure zapalkuntzaren sustraia bat dela gutz-tiontzat. Beraz, ez dugu adjetiborik behar, denak baikara langile eta



abertzaleentzat, langileena maiatzaren lehena, Sta. Lucía jostunena, Sto. Tomás de Aquino ikasleentzat, etab.

Gurea, gainera, internazionala da, emakumeok elkarrekin daukagun

santuak egun egokietan ezarriz.

Opresiotik irteten ahalegintzen den klase-batentzat, bere askatasun bidean gertaturiko gauza hospetsu- ren baten oroi-pena izaten da egun

nearen egun internazionala. Ez dugu hil nahi!

gehienetan esklabu gainera. Martxoak 8 guztiona da, eta ez besteez langile kontsideratzen dutenentzat bakarrik.

BELDURRIK GABE, ESPRESA GAITEZEN

Espresio bideetan ere, ari gara eskema klasikoak erabat apurtzen. Esaten dutenez, gure manifestapenak folklore hutsa dira, oihuekin batera kantak eta dantzak sartzen ditugulako, eta baita joko batzu ere. Agian arrazoia dute, baina guztiei aplikatuz gero, manifestapenak beti dira folklorikoak, batzu negartiak eta besteak ez hainbeste, folkloreak ere forma desberdinak hartzen ditu eta.

Honetaz gainera, Donostian emakumeen arte-erakusketa bat egin genuen eta elkar hizketa bat ere, gai honi buruz. Langabezia eta abortoa ere mintzatu ginen.

Musika, antzerkia eta festa ere izan genuen. Aurten ere, aditu behar izan ditugu zenbait jauntxoren harrokeriak, gurekin festa egitera sartu nahi zutelako nahiz eta guk garbi adierazi geure artean nahi genuela egon, NAHI GENUELAKO! ez al da aski? Bale.

ABORTOA, KANPAINA INTERNAZIONALA

Aurtengo martxoaren 8an, bi erreibindikapen atera ditugu aurretik kalera eta eztabaidetara: langabezia eta abortoa. Azkeneko hau bereziki, internazional mailan eramaten ari garen kanpaina baten gai da. Euskal Herrian ere hasi gara honetan, egoera larria baita. Baina kanpaina eta abortoa eguna izendatu den martxoak 31 ez dira helburuak guretzat, baizik eta hasiera besterik ez.

Hau idazten ari garenean, eztabaida interesgarriak izan dira Euskal Herrian, Leonor Taboadak hiriburuetan eman dituen hitzaldiak izan direlarik animatzaile. "Abortatzeko eskubidea exigitzen dugu baina ez dugu nahi abortatu" eta ez dugula nahi

garbi baldin badago, gizonezkoekin harremanak nola eraman behar ditugun berrikusi beharko dugu. Abortoa ez da soluzioa epe luzera, baina orain eta beti gure gorputzaren kontrola

Gaia sakondu, eskubidea exigitu, zenbait ekintza aurrera eraman, nazioarteko elkartasuna, izango lirakete kanpaina honek, oso laburki, hartzen dituen zenbait ezaugarri.



geuk nahi dugu izan eta eskubide hori ere ezin digute ukatu. Abortatu nahi badugu behartuak gaudelako, ume hori nahi ez dugulako, kondizio honetan egin dezagun behinik behin.

Oraindik ezin dugu balantze bat egin baina positibotzat jo dezakegu darman bidea.

Itziar Urtasun

Espainiako parlamentuan demokrazia

Espainiako Parlamentuan demokrazia funtzionatzen hasi da berriz. Argazkian ikusten duzuen bezala, Blas Piñar Lopez, "betiko demokrata", botua entregatzen ari da, Kongresuko presidentea hautatzeko.

Beste argazkian, Santiago Carrillo aurrean, eta atzetik, demokrazia ikasten ari balitz bezala, Blas Piñar. Batek polizia gehiago behar dela esaten du, eta besteak polizia gehiago behar dela esaten du. Euskal Herriarentzat, ordeinu publiko asuntuan ez dute diferentzia handiegirik bi horik.

Kontsentsua lortuko al dute?



PNV-ko Marcos Vizcayak: "Estatutua ala independentzia"

Marcos Vizcaya jaunak ez zuen independentziaz hitz egin. Marcos Vizcaya jaunak, PNVko diputatuak, Jose Antonio Agirreren esaldi bat errepikatu besterik ez zuen egin.

Denok oroitzen zarete nola orain dela gutxi egin zituen deklarazio horik PNVko diputatuak. Baina aklarazioak eta errektifikazioak ere etorri ziren laister.

Harrigarri baldin bada ere, aklarazio eta errektifikazio horik Madrileko "Pueblo" egunkariak publikatu zituen, eta gero Colpisa berriagentziak zabaldu zituen Estatu guztiko teletipoetara.

Askok diote, bi hitz klase erabiltzen dituela PNVk: hitz bat Euskadin eta beste bat Madrilen.

Ez dakit zergatik, baina kasu honetan ere gauza berbera gertatu dela uste dut.

Baina oraindik ez dut esan zeintzu izan ziren Marcos Vizcayaren deklarazioak. Beno ba, ahantzi baino lehen esango ditut: "Prestatu dugun Estatutua, dagoen bezala ez baldin badigute onartzen, Independentzia eskatuko dugu".

Gutxi gora behera hori zen Marcos Vizcayak esana.

Komentarioak egiteko, lehenbizi baso pare bat ardo edan eta kristorenak esan, ondoren.



Poliziaren informazio brigada "a tope" ari da lanean

"Poliziak ez du kontutan izaten hauteskundeak egitearen faktorea". Hori deklaratu zuen orain dela gutxi Segurtasuneko Zuzendaritza Jeneraleko bozeramaile batek. Berberak ere esan zuen, Informazio Brigada "a tope" ari dela lanean, Euskal Herrian.

Txibatoek eta poliziek ez dute atsedenik hartzen Euskadin.

Lehen gutxi baldin baziren, otsailean 50 komisari gehiago etorri ziren Euskadira, eta horietako gehienak, azken promozioetako hoberenak dira.

Horik dira "espainol bakearen" enbaxadore. Eta PCE-k eta PSOE-k eta ORT-k, etabarrek, "ongi-itorria" emango diete.

Beste zenbaitek ere emango die ongi etorria... baina parabellumekin.

Eta besterik ez dugun bitartean, guk egin ahal duguna zera da, kontraintformazioko brigada sortu... ala "gaizki etorria" eman.



1978n biolentzia: 270.000 deliktu Espainian

Madrileko egunkari batek hurrengo estadistika hauk argitara eman ditu: 234 asasinatze, 25 heriotza droga gehiegiz, 4.000 atrako, eta 55.471 detentzio.

Atentatu terroristetatik aparte, 272.311 deliktu egin ziren aurreko urtean Espainian. Deliktu gehienak jabegoaren kontra izan ziren.

Hona, bada, ihaz, ehuneko hogeita bost gehitu ziren deliktuak.

Madrilen, jabegoaren kontrako deliktuak 71.000 izan ziren, eta Bartzelonan 45.264 izan ziren.

Guzti honek, Madrileko egunkariak dioenez, intsegurtasuna ematen dio jendeari, eta horregatik gehitzen dira segurtasun sistemak, batez ere lapurretak ebitatzeko direnak.

Asuntu honetan ere, barren barrenko arrazoiak bilatu beharrean, ondasunak hobeki banatu beharrean, eta lan gabezia konpondu beharrean, Madrileko egunkariak esaten duena hau da: balore izpiritualak galtzen ari direla, eta zenbait espektakulo eta komunikabideen zentzu negatiboak dakarrela biolentziaren gehitzea.

Zergatik ote dira Madrileko egunkariak hain mioppeak, beti?

Iñaki Zabaleta



HAMABOST EGUN HANKAZ GORA

**IRUÑAN, AMORRIZ
URNARI MATRAILUKA**

Hauteskundeetan ez daude denak konforme hauk egiten diren sistemaz. Hauteskunde municipalen egunean Iruñan gertaturikoak ematen digu horren frogantza argia.

Rafael Zalakain jauna, Iruñako PSOEko sozialisten buru izanikoa, eta geroztik alderdi horretatik irtena bere botua ematera joan zen, beste asko bezala. PSOEren botupapera hartu eta bertako izenak bere gustokoak ez zirenez, boligrafoaz bertan ikusi nahi ez zituen izenak kentzen hasi zen.

Hautamahaiian zeudenek horrelako boturik ezin onar ezaketela esanda, Rafaelek, agian kasoalitatez, gabardinan zeraman mailua atera eta gustura gelditu zen kolpe eder bat emanda gero.

Zerrenda hitxien sistema horrekin ados ez datozenak nahiko izan arren ez diegu gomendatzen mailuaren sistema beren ezadostasuna adierazteko, leku txarrean amaitzeko arriskua baitago.

**BANDRES JAUNARI
HITZ BATZU**

Irakurria dugu askotan, hiru probintzietan zu zarela garraioaz arduratzen zarena. Gero, orain gutti, bide eta kamino guztietako seinaleen izenaldaketa inposatzen zela ere jakin izan dugu.

Eusko Kontseilu Nagusi horri esker, zenbait euskal izen euskaraz agertuko zaigu. Harriturik irakurri genuen lehengo egunean beste euskal izen asko, esaterako, Gernika, Mungia, Errenteria, etab. euskararen iskribaketarekin erdararena ere eta letra handiz omen, agertuko

dela. Horrela, GUERNICA eta Gernika irakur dezagun. Ba dakit hau guztiau tontakeria bat izan beharko litzatekeela eta norberaren herriaren izena norberaren hizkuntzan bakarrik agertu beharko litzatekeela, baina desgutzuz ez da hori ere. Negargarria da, hainbeste problema latz daukagularik, honetaz tinta eta hitz galtzea, baina holaxe da. Hasteko behintzat ongi irudituko litzaiguke esaterako, ezberdintasun handia egonez gero, esaterako, Salvatierra eta Agurain, Donostia eta San Sebastián, biak batera ipintzea baina konprenitzen ez dudana bestea da. Jauna, guzti honetaz ezer esan behar badiguzu, egin ezazu lehenbaitlehen. Zure erantzunaren zain.

M.ª Asun Arrieta

**MUGA GUZTIZ
SANTUA**

Beti gertatzen dena gertatu da oraingoa ere: mugaz harunzkoak **ahaztu** ditugu... Monzonen askatzearen aldeko idazki bat bidali da prentsara eta mugaz harunzko haurri-deak **ahaztu** ditugu... Izenpetu dugun guztiok lau probintzietakoak izan gara. Berrero ere muga guztiz santua adoratzeko ari.

Eta kasu bakarra izan balitz! Baina bai zera! Hurrelaxe jokaten ohi dugu BETI. Ahotan bai darabilgu ZAZPIAK BAT delakoa (eta zer baitetan ezta ahotan ere!). Geure egunoroko jokabidean, ordea, muga guztiz santua adoratzeko osoz errespetatzen.

Euskal Jaialdiak direla, Euskaltzaindiaren batzarre agiriak direla, Pastoralak direla, han urri, oso urri izaten dira hemengo euskaldunak. Muga guztiz santua adoratzeko dugu.

Hango aldezkarietan idazten duten mugaz honunzko idazleak zenbat ote dira? Muga guztiz santua adoratzeko dugu ahozpezturik.

Berriki izan dira Frantziako hauteskundeak eta, nik dakidanez, abertzale prentsak ez digu esan Frantziako Euskal Herrian zer gertatu den. Muga guztiz santua adoratzeko dugu debotki.

E. Knörr



**ORT eta PTE-ren
BATERATZE
MIRESGARRIAZ**

Ezker abertzalearen zantakeria biziki sentitzen den mementu honetan, ORT eta PTE-ren maoismoak irakaspen ederra digu batasunari dagokienez.

Ez pentsa hala ere bateratze hori lortzea erraza izan zaiela, diferentzia gogorak zeuden bion artean. Horrela, ORT-ren sekretaria den Sanromá jaunak, klandestinitatean "Intxausti" zenak, honako deklarapen hau egin zikion "El Viejo Topo" aldezkaritari, Martxoko alean: "El PTE es un partido dirigido por una camarilla oportunista que no tiene ningún afán por la revolución ni ninguna vinculación con el marxismo leninismo". Hemendik, pentsa dezakegu ORTkoak izan direla, PTEko oportunista ohiei iraultza eta marxismo leninismo benetakoak zer diren irakutsi dietenak. Dena den, ondo ikasi dute eta alderdi biak definitiboki bat egiteko dira.


Haatik, batasuna ez da bakarrik dialektika maoistaren fruitua izan, eta batak baino gehiagok sumatu lezake Martxoko hauteskundearen zerikusirik izan dutela. Eta noski, debotgogor eta sakon bat ere egon dela bitartean batasuna da.

**DENBORAK ESANGO
DIGU.
NOR IZANGO DA
IRUIÑAKO ALKATEA?**

Argi dago Herri Batasunari bidea mozteko beste guztiok ados jarriko direla UCDtik hasita E. Eraino ltuinean, honetarako, frogatik ikusiko dugu. Lerru hauk idazten hasten naren zenean oraindik 8 egun falta zaizkigu zer egiten den jakiteko. Oker banango askoz hobe, ea okertzen naizen. PSOEek gauza asko egin dezake. Bata botua kontra UCDri edo PNVRi emanaz, ematekotan PNVRi emango dio. Beste bat abstentzioa egiten badu UCDri ematen dio argi, argi eta itxura ere ez du salbatuko. Abstentzio kontuan PSOEko batzu bakarrik abstentzioaren alde eta beste batzu Herri Batasunaren alde. UCD ere kontsekoentek atereaz. Baina ez dugu uste horrela izango denik, joko horik nahiko ikusirik daude demokrazian eta. Hemen dugu segurasi eta zoritxarrez edukiko dugun jokoa. Ondorengoa da: PSOE bere buruari emango dio botua, H.B. bere bere buruari, PNVRi H.B.ri UPNk edo UCDri edo abstentzioa eta UCDri PSOEri. Eta PSOE izango du Euskal Herriko hiriburuen alkateza. Berritan nik nahi dudana zera da, oker oker egotea, eta Herri Batasunak alkatez atera dezala. E.H.

5-04-78





Ezin deitia

Hor egin düzünak ez dü gure hizkuntzan izenik.
Frantsesian ba diala uste dit, zeren jadanik
Holako zerbait Pétain-ek ba zizün gerlan eginik
Ez dirüdi herritarrek hartaz ürgüülü dienik.

Franco-k egin ez ziana zük egin düzü, Valéry:
Bestaldetik ihes jinak turnatü Gestapoari
Zazpi Eüskaldün presuner saldü beren etsaiari
Hogeitahamar hitzeko tresna ederren ordari.

Uste ginizün Pilatüs eskü xuria zinela.
Egün ikusten zütügü zikinik Jüdas bezala,
Denari zonbaiten trükü gizona saltzen berhala,
Zureztat bardin baitira jentea eta xahala.

Xahal bat dela Frantsesa, De Gaulle-k ümen errana.
Kabale bada, ez düzü ber motatik Eüskaldüna:
Urzo xuri ala gorri ala sai beltzen bardina,
Ez dü segür ahatzeko zure gaurko saltzapena.

Oro kabale bagira, zointarik zirate, Giscard?
Gora ikusten züntügün, Don Kixote lepo mehar,
Kamelü bortian esnaur, nahiz beti gure bizkar,
Baina gaur süge hotz eta faltsietan eman behar.

Ainhera lümekin ere, bardin ülhün belea.
Franco-k eraiki poliza beti da zapazalea,
“Libera” izanagatik, kapitala jente jalea,
Franco-rekin edo gabe, Fazisten lagünzalea.

J. L. Davant

Emakume iraniarrak



Mundu guztiko begiek Iranen izan zuten pausalekua azken hilabete hauetan. Han gertatu ziren gatazka, ehundaka heriotzeak, manifestaperikaragarriak, Xah-en irteera eta azkenik Aiatollah Khomeinik (euskarezhola idatzi behar da, bestelakoen Jhomeini) boterea hartzea; gehiago edo guttiago guztiorrek aztoratuta utzi gintuen. Inkognita handi bat agertzen zen, halaz ere, etorkizunean. Zer eratakoa gertatuko ote zen ezarri nahi zuten islamiar errepublika hori? Herri borroka baten fruitua izateak gauzak hobekiago moldatuz joateko garantiaren bat eskaintzen zuela iruditzen zitzaidan, hain diktadura gogorra sofritu izan duen herri horrentzat.

Hala ere, iraniar emakumeak pentsatzen nuenean ezin nuen emakume horien etorkizun erabat beltza ikustea aldendu. Zer suposatuko ote zuen haietzat "islamiar errepublika" berri horrek? Zeintzu ondorio lekarzkiekete Alkoran-en lege sakratuaren

aurpegi emanaz

ezarpenek? Zeren, musulman erlijioaren Liburu Sainduak betidanik izan baitira gizonezkoen beharrei eta nahiei egokituta ulertuak. Emakume musulmanak, behin ezkonduz gero, bere senarraren esanetara makurtu beharra du. Ezkontzatik at beste erlazio batzuek eraman dituen emakumearentzat harrikatze publikoak, legeak ezartzen ditu, nahiz eta emakumea zapuztea eguneroko gauza izan. Bere emaztea zigor eta jo dezake senarrak. Arau batzuek ezartzen dituzte lege islamikoak hortarako: makilaren luzera, kolpeen kopurua eta asintzeko tokiak. Sendi batetako adozein gizonezko boterea du emakume musulmanaren gain. Bere aita edo eta senarra ez direnean, anaiaren bafek edo semeak ere bere orde z erabakiak hartzeko eskubidea daukate. Ikiltasuna, obediencia, apaltasuna eta aurpegi estalki beltzak ("txador" delakoa) dira berari dagozkionak. Gainera, Alkoran-ek, klitorikomiari (klitorisaren ebaketa) buruz nahiz eta ezer ez esan, bere praktika oso zabaldua dago eta erlijioa musulmanak onartua eta babestua. Praktika hau Sudan eta beste herri batzutan neskaten maginako ezpainen josteta egitera iristen da.

Zer pentsa, "emakumea madarikatua, menpekota eta lohia" dela

aldarrikatzen duen erlijio batetaz? Nolatan izango ote da posible —pentsatzen nuen— iraniar emakumeen liberazioa, Aiatollah Khomeinik eta bere kideek ezarri nahi dituzten erlijiozko pentsamolde horien barnean? Alkoran-en legeetan finkatua eta bere bedeinkapenarekin jaio den errepublika honetan, zer etorkizun izango ote dute emakume iraniarrek?

Ez da asko luzatu galdekizun guzti hauen erantzuna. Eguneroko egunkarietan jarraitu ahal izan diogu. Abortuari buruz, lehenagotik zegoen legea deuseztatua gelditzen da..., emakume bat eta bere maitatzailea publikoki azotatuak izan dira... Kaleratuak dira galtzaz jantzirik lanera joaten diren emakumeak. Estalkirik gabe ibili nahi duten zenbait emakumek, islamiar taldeen bortxaketa jasaten dute. Errepresioa hasi da. Eta aurpegiko "estalkian" (txadorrean) finkatu da bere azalpenik gogorrena. Bat-batean kalera irten dira emakumeak. Bat-batean milaka eta milaka emakumek ez dute estalkirik jantzi nahi eta gogoa duten eran jantzeko eskubidea galdatzen dute. Bestetan hain gogor jokatu duen Khomeinik, makurtu beharra izan du eta beloa jantzea ez dela behartuko esatera iritsi da.

Eskerrak emakume iraniarrek

beren interesak defendatzen dakitela, erakusten ari direnez. Ez baita borroka amaitu beraiantzat.

50.000 emakumezkoren manifestazioaren barnean ibili zen emakume batek honela aitortu zion periodista frantses bati: "Bi manifestaziotan bakarrik izan naiz ene bizitzan: lehenbizikoa Xah-k estalkia eramatea debekatu zuenean, eta bigarrena, Aiatollah Khomeinik estalkia eramatea inposatu nahi digunean". Esaldi honek nahiko ongi adierazten duela uste dut, emakume iraniarrek eta beste emakume guztiok gutti gorabehera borrokatzen duguna: guk geuk ulertzen dugun eran emakumeok emakume izateko eskubidea. Inolako inposizio edo debekurik gabe. Emakume eta pertsona askatuen gisan, gehien konbentzitzen digun eran, modu berezi batez, herriko kultura eta tradizioan oinarrituz, baina horregatik gure liberazio bidean atzerakako urrats bat ere eman gabe.

Gaur emakume iraniarrak, egunkari guztietako lehen horrialdean daude. Estalkirik gabe. Eta multzo ikaragarrietan. Garaia ikusten dute, baina Mahomarengandik ere defendatzen jakingo dutelako konfidantza sortzen dit horrexek.

Mariasun Landa



Palestindarren Kontseilu Nazionalaren Biltzarra

OLP-K EZ DU NEGOZIATUKO

Ekialde hurbilaren krisialdiaz mintzatzean, Palestinako arazoa agertzen zaigu korapiloaren erdian. Lau gerrate eta Libanon egindako gatazkak kontutan harturik Arabiar eta Israeldarren arteko ezberdintasunak ez dira horregatik bigundu. Camp Davideko saiaketa negoziatzaileak egin arren hor segitzen du zutik Palestinako arazo osoak.

PALESTINDARREN KONTSEILU NAZIONALAREN BILTZARREA

Azken Otsailaren lehen egunetan, OLPk Damaskon bere kontseilu nazionalaren biltzarra ospatu zuen. Bertan, Palestinako erakunde bateratu guztiak biltzen dira; helburua, guztiz politikoa, hau da, Palestinako askatasunarako egin behar diren proiektu, taktikak eta estrategia. Espainiako OLPko ordezkaria den Hussen Abu Alik, Bartzelonan egindako prentsaurreko batetan, biltzarre horrek atera duen programa politikoak hitzegun zizun.

Sogile batzuk, dio Ali Bubu-k, kontseilu honetatik akordiorik sortuko ez zela pentsatu egin dute. Palestinako erakundeen ezberdintasunean finkatu dute aurreikuste hau. Baina gure aldetik zera esan behar dugu: Gure herriaren banatzea eta gure estruktura demokratikoa kontutan hartzen badugu normalizat hartu behar ditugu gure seneko ezberdintasun horik. Hala, gure herria Estatu berberean bizi ez baita.

Batzu, Jordanian, beste batzu, Egipton edo Syrian eta ab. Denotan gobernamentuak ez dira bat eta nahitaz berdintasun hauk gure erakundeetan agertzen dira, horregatik eta, erakunde nagusiaren barruan joera ezberdinak egoten dira. Haueratariko batzu, Al-Saika-koak, esaterako, Siriaren alde daude, beste batzu aldiz, F.L.N.a esaterako Iraken alde agertzen da. Hala ere, zortzi egun eztabaidetan egon eta gero ikuspegi



bateratu batetara heldu gara. Berau ondoko programan erakusten da:

1. Ez da ez bakerik ez lasaitasunik egonen gure eskualdetan, gure eskubide nazionalak onartzen ez diren artean (Aberri berrizultzeta, autodeterminazioa eta independentzia).

2. Palestindar herriaren ordezkari bakar eta legezkoa OLPa dela onartzea.

3. Rabaten eta Argelen onartutako erabakiak apoiatzea.

4. Herriaren burruka harmatua eta oroharki gure lur desjabetuotan eginen diren burruka guztiak apoiatzea.

5. Gazza-rako eta Cisjordaniarako egin daitekeen edozein autonomia errefusatzea, edo eta Israeleko Estatuaren onspenera suposatuko lukeen edozein akordio ere errefusatzea. Zentzu horretan, OLPko indar politikoa den FNLa apoiatuko dugu.

6. Nazioarteko mailan OLPk gobernamentu lagun guztiekiko harremanak gehituko ditu eta bereziki herri sozialistekin egindakoak eta hala ere alineatuta ez dauden herri guztietakoak, inperialismoaren kontrako burrukan segituz. Zentzu honetan ere, norberaren herria edo aberria askatzeko burrukatzen diren erakunde guztiekiko harremanak gehituko ditugu.

EZ GARA KAMIKAZAK, BIZITZETIKO BURRUKA EGITEN DUGU

Lagun Abu Ali, orain guttiko deklarapen batzuen arauera, Moise Dayanek OLPkoekin negoziatze prest zegoela esan du. Zer pentsatzen duzu horretaz?

—Nik neuk, ez nekien ezer horretaz. Dena den, horri nik maliobra politikoa ikusten diot, zera litzazguker gainera, Camp Davideko eztabaidetan parte har dezagun, juduek kea egiten ari dira. Hitz batez, gure erakundea jarrera ezberdin eta kontrakorretara eramán nahi dute.

OLPk oraingo gobernu juduarekin ez du negoziatu nahi, negoziatuko al luke Israeleko gobernu sozialista batekin?

—Asko hitzegin da Israeleko bigun eta gogorren existentziak, azkoz eta usoez eta noski, sozialistak usotzat hartu dira. Bada ezpada, bigunen sasoiak 57.ko gerra, sei egunetakoa eta 76.koa egin dela gogoratu behar da. Gainera zerorri, Israelekin tratuak egitea bere estatuaren eskubideak onartzea da eta gu ez gara mugaldeko arazo batzuez eztabaidatzen hasi, guk nahi duguna da gure lurra gure herriarentzat.

Zuen oraingo egoera latz hori ikusita, rrefuxiatuentzako uneak.

ionalaren Biltzarrea Damaskon

exilioa eta ab. ez al duzue uste zuen jarrera hori utopikoa denik?

—Arafat-ek behin zera esan zuen: "Iraultza ez dela paseo bat". Agian, guk ez dugu gure aberria askaturik ikusiko, baina burrukak dugu inperialismoaren kontra. Herriaren burruka harmatu bat ipini dugu praktikan, ba dakigu berau luzea eta zailtasunez beterik egonen dela. Honela egiten badugu ez dugu, jakina, zera-rengatik egiten, guri heriotzea gus-tatzen zaigulako edo, baizik eta guri gehien gustatzen zaiguna bizitza bai-ta. Bestaldetik badakigu Israel zer bilatzen ari den, bere existentziaren eskubidea eta ikuspegi horren arau-er-a negoziaketa ez da posible.

Garbi dago beraz zuen oposi-zioa. Zein da zuek proposatzen duzuen soluziobidea?

—Nahi duguna garbi dago. Israel Estatua birrindu nahi dugu. Ez inola ere juduak. Gu Palestinako Estatu laiko eta demokratiko baten alde gaude; bertan, judu, musulman edo kristauen arteko ezberdintasun politi-korik gabe, ez kulturaren aldetik ez inongo aldetik.

Jaiotzez diren judupalestindarrak oso gutti dago, ia guztiak kanpoan jaiotakoak dira baina ez ditugu berak baztertu nahi edo eta kanpora bidali. Palestina askatu batetan gera-tuko lirateke.

Zuen aberritik kanpoan zehar egindako burrukaekintzen aurrean zein da zuen jarrera?

—Gure jarrera ofiziala zera da, gure aberriaren desjabetzearen kon-tra egitea. Sasoi batetan nazioarteko ekintza haiekin gure aberriaren burrukari oihartzuna eman nahi genion, horrela egin genituen ekintza batzu baina beti legez, nazioarteko prentsak aldrebestu egin zituen. Munik-ekoa (München) adibidez, bertan ari ziren komandoak ez ziren "hiltzera" joan, bahiketa bat egitera gero, hori bai, gartzelan zeuden gure atxilotuekin kanbiatzeko. Prentsak eta nork gogorazi zituen gure orduko

1.000 atxilotuak?

EZ GARA INOLAKO ENBAXADA BAIZIK ETA BURRUKAN ARI DEN HERRI BATEN ORDEZKARIAK

Zeintzu dira gobernu espainol edo Espainiako politik alderdiek OLPkoekin dituzten harremanak?

—Beno, lehenez zera, gu ez gara inolako enbaxada baizik eta burrukan ari den herri baten ordezkariak. Fran-coren garaian eta oraindik ere Espai-niak ez du Israel berrezagutu. Arra-zoiak sinpleak izan dira beti. Espai-niak arabiarak nahiago izan baditu, ekonomia aldetik izan da. Oraingo gobernuak antza denez, Israel berre-zagutu nahi du hala ere guk ez dugu harremanik gobernuarekin. Alderdi politikoez hitzegitean beste gauza bat da eta harremanak ba ditugu bai-

na hau nahiko kontraditorioak dira. PSOE esaterako, gurekin dago harre-manetan baina hala ere Israeleko laboristekin ere. Ezkerreko alderdiei buruz, M. C. etab., gure harremanak ez dira oinarritzen alderdi horiek duten indarrean baizik eta ematen diguten laguntzean.

ETA, zuekin harremanetan egon edo egoten al da?

—Nazio askatasunarako diren mugimendu guztiekin harreman onak ditugu baina kasu konkretu horretan, nik dakidanez gero, ez da harremanik egon.

Dena den, egon bada ere, goi-mailetan egingo ziratekeen eta hortaz ni behintzat ez nago infor-maturik.

*K. Ordozgoiti
Kendo.
E. H.-k itzulita*





Ekialde hurbileko bakea

Harrituta geratzeko zen, benetan, azken astean Egiptok eta Israelek bake-hitzarmen bat sinatuko zela jakitea. Aspaldian genekien jende asko asko zebilela hitzarmen horren atzetik, baina aurreko jaialdietako porrota ikusirik, nork pentsa zezakeen hain arin lortuko zela? Ene ustez, Carter-ek ere ez zuen hainbeste hain denbora laburrean espero ahal, bere bidaiari hasi zuen mementuan. Hala ere, errealitatea hori da, eta berori hartu beharko da kontutan oraindik aurrera.

Zergatik heldu dira orain juxtu akordio horretara? Nork nahi zuen? Zergatik interesatzen zitzaizkien?

Argi dago Ekialde Hurbilean, oro har, hiru jarrera daudela: Israelekoa, Egiptokoa (hau da, arabiar moderatuenak), eta beste arabiarrena (hots, erradikalena). Azken hau akordioetatik kanpo egon nahi dutenez gero, Egipto eta Israel geratu dira elkarrekin mintzatzeko. Baina, bakarrik? Ez; hirugarren presentzia bat egon da elkarrizketetan, eta ez da garrantzi gutxien daukana: Amerikarrak; halagia. Han egon dira Carter eta beraren ingurukoak, batzuri zerbait aginduz, besteei beste zerbait, besteen arazoak konpondu nahiz, azken batetan beraiena konpontzearen, alderdi horretako eragipena mantentzea baita interesatzen zaiena. Eta zergatik zuten Iparramerikarrek hainbeste presa hitzarmena egiteko? Ba, arrazoia argi bide dago: Iraneko gertaerak herrialde horretan USAk zuen eraginari oztopo asko ipini diotenez gero, argi zegoen galera hori beste puntu estrategikoak segurtatuz konpentsatu behar zutela, eta arin, oreka gordetzearen.

Horregatik joan zen harantz Carter, inork horrelakorik pentsatzen ez zuen mementuan. Eta batzuekin eta

besteekin hitz eginez, bi Estatuetakoa lehendakariak eta beraien laguntzai-leak ados ipini ditu.

Baina zeintzu dira herrialde hartako arazoak? Nortzu dira mementu honetan beraien problemetarako irtenbide bat gehien behar dutenak?

Egia da bai Israelek, eta bai Egiptok ere, "bakea" behar dutela, hots, gudu-egoeraren amaiera, eta batez ere arrazoia ekonomikoengatik; Egipto, adibidez, oso txarto dabil azken denboran, eta beraz, oso ondo etorriko litzaizkioke guduko gastuak aurrerabide ekonomikoa lortzeko.

Eta hain da garrantzitsua beraientzat oraingo egoerarekin amaitzea, ezen, akordio honetan gauza askotan amore emateko prest egon direla. Hala ere, arazoa ez da soilik bi herri horiek bakea behar duten, edo zertan eman behar duten amore; arazoa beste herri batzuren ere ba da, hau da, inguruko arabiarrena, eta prezekiago, palestindarra, alde batetik arazoa azken hau direla esan baitaiteke.

Hiru taldeen artean, batzuk, nahi zutenean, amore emanez, besteek, hau da, amerikarrek, besteak matzeko behar zena aginduz, guztiek onartzen zuten zerbait zehaztera heldu dira. Elkarrizketa horietan Zisjordaniaz eta Sinai-z mintzatu da; etorkizunerako pausoak markatu dituzte eta herrialde haietako biztanleen eginbeharrak eta eskubideak ere. Baina Sinaiko arazoa bioi soilik bada-gokie, nola esan gauza bera Zisjordaniaz? Nortzu dira egiptiarrak palestindarren lurak eta etorkizuna, interesatuekin ados egon gabe, tratatzeko? Norentzako bakea izango da tratatu honek ekarriko duena? Agian, Egipto eta Israelentzat, ez dakit; baina inorentzat gehiago, segur asko.

Akordioa eginda zegoela esan

bezain laster, arabiar guztiek, egiptiarrak salbu, noski, garbi adierazi dute beraien protesta, zeren arazoa ez baita soilik akordioa heltzeko modua irregularra izan denentz, hartu diren erabakiak oso zuzenak ez direla baino. Adibidez, Zisjordaniko arazoa konpontzeko, herrialde horretako autonomiaz pentsatu da; baina nolako autonomia! Benetan, palestindarren arazoa akordio honen bidez konpon daitekeela pentsatzen dutenekitsuak izan behar dute; hainbeste urtetan zehar lur zati bat beraientzat lortzeko hain gogorki burrukatu direnak, nola konformatuko dira "askatasun" apur horiekin? Zergatik onartuko dute beste batzuk, beraiekin konstatu gabe, eman nahi dietenarekin eskatzen dutena beraiena izanik?

Salatzekoa da, beraz, Egiptok eta Israelek hartu duten jarrera, baina salatzekoagoa, dudarik gabe, Estatu Batuenak, beti bezala beren inperialismoa mantentzearen, besteen bizitza konpondu nahi dutenean. Beno, ez dakit "konpondu" den erabili behar den aditza, zeren ez baitut ulertzen zein bake tratatzen den, amore ematearen truke harmak agintzen diren mementuan. Bai, Estatu Batuek laguntza ekonomikoa agindu diete bi herrioi, baina laguntza horren barruan, harrarrik sofistikatuenak ere emango dizkiete. Zergatik nahi dituzte bakeaz elkarrekin mintzatzean? Ulergaitza benetan; edo ulergarriegi?

Dena den, argi dago bai Israel hor dagoea, eta herri horren bake-nahiak errespetatu behar direla, eta bai palestindarrek beren nazioa lekutzeko duten eskubidea ere. Baina bi problemak dira kontutan hartzekoak, eta bi aldeak ados ipintzen ez badira, ilun ikus daiteke herrialde horretako etorkizuna denbora luzerako.

Maria Jesus Esteban



Frantziako irakaskuntzan eliteak aurrera

Hasieran Frantziako irakaskuntza sistemari begiratzeko zaionean, oso normala dateke, Espainol Estatuan dagoenaren antzekoa dela pentsatzea: hartzaindegia, eskola, lizeoa, unibertsitatea edo eskola profesionalak eta unibertsitarioak... Baina luzeago begiratzeko bada, gure artean ez dauden beste gauza asko aurki daitezke; eta ez da hau gertatzen, han irakasten dena, klaseak emateko modua, etab. aztertzen denean, agerriago dagoen beste zerbaitetaz ohartzean baino.

Han, gure COUren antzekoa amaitzen denean nahiko gogorra den azterketa pasatu ondoren, tipo askotako irteerak daude ikasleentzat; han, dudatzen dena ez da zer egin, baizik eta gaia aukeratuta, non egin.

Hango bide bat, hemengoa bezalako unibertsitate eta eskola profesional eta unibertsitarioetara joatea da, hango mailaketa eta gaiak aukeratzeko era desberdina badira ere.

Baina hortik aparte, ba daude han,

hemen existitzen ez diren beste eskola batzuk: eskola politeknikoak, inginadoreen eskola desberdinak, administratzaileentzako eskola, eskola normal nagusia... eta hainbat eta hainbat.

Zergatik dira desberdinak eskola hauek, zer daukate ba? Beraietara, lizeoan oso nota onak eduki dituztenak joaten dira soilik; han, ia diziplina militarra dago; klaseak gogorak dira, lan handia egin behar da, ikasleen arteko konpetentzia itzela delarik; eta gainera, hor daudenek oso bizitza ordenatu eta normetarik irteten ez dena daramate; beraz, askoren ustez, bizitza orekatu bat...

Eskola horien artean ba daude ere tipo asko; kasu batzutan, eskola berean amaitzen dira ikasketak, eta handik... seguru daukaten lanpostura. Beste batzutan, ordea, amaitzen denean, fakultateetara joan daitezke, zuzen zuzen azken mailara pasatu, eta, jeneralean, fakultatekoak baino askoz egoera hobean aurkitzen dira

eskola horien ikasleak.

Eskolotatik irteten dira, eta irteten segitzen dute Frantses Estatuako koadroak, administratzaileak, politikariak, zientzialaririk handienak, enpresa zuzendariak... eta abar luze bat, hau da, gutxi gora behera, Estatuako mar-txa ekonomiko eta politikoa kontrolatzen dutenak.

Eta kontutan hartu behar da, eskola horietatik ateratzen denaren ezagupenak eta arrazontzeko ahalmena, oso handiak badira, ez dela txikiagoa normen artean bizitzeko ohitura, domeinua, egitekoaren zentzua, ordena eta diziplinarena... hau da, gure gizartearen bertutetzat edukitzen diren hainbat gauza.

Honela, eta metodo honen bidez, teknikari eta koadro oso konpetenteak lortzeki aparte, beste oso gauza on bat segurtatzen du estatuak: jende honen prestaketa kontrolatua izan dela, ia detalerik minimoetan.

Eta gero esango dute Frantzia "égalité"aren herrialdea dela...!

María Jesús Esteban

Frantzian, gutxi, baina gure alde mugitu dira ere

Nahiz eta apur bat berandu, Frantzian ere, eta Parisen prezeski, zerbait entzun ahal izan dugu Estatu honek euskal errefuxiatuen kontra hartu dituen neurriei buruz.

Neurri horik hartuta izan zirenean aipatuak izan ziren prentsan, noski, baina analisisetan urrunegi joan gabe. Alderdiak eta bestelako taldeak, hala ere, ixilik zeuden. Beste extradizio batzuren kasuan, zenbait talde mugitu bada ere, ez zirudien ezlegaltasuna hain argi agertzen deneko asuntu honen aurrean inor hunkituta zegoenik.


Hala ere, eta inolako itxaropenik ez nuenean, zenbait fakultateetan

euskal errefuxiatuen aldeko kartel handiak ikusi ditut, kanpaina bat hasi da firmak hartzeko, eta azken batean, jendea arazoaz nolabait kontzientziarazteko.

Nork muntatu du hau? OCI izena daukan talde troskista batek, beraren militante guztiak lan honetan sartuta daudelarik.

Hala ere, eta esatea penagarria bada ere, gutxi inportatzen zaio hemengo jendeari euskaldun horien zortea, do hobeto esan, gure herriarena. Hemen ere, ia gehienek ezker abertzaleok terroristatzat gauzkate eta...

María Jesús Esteban



NAZIO ARAZOAK SOBIETAR BATASUNEAN

Frantses Estatuan, Sobiet Elkar-goan zabalitzen ari den nazio problema buruzko liburu berri bat agertu da. Egilea **Helene Carrere d'Encausse**, hango problematika ederki ezagutzen duen emakume famatutzat ezaguna da. Haren liburuak "L'Empire Eclaté" (Inperio Lehertua) dauka titulutzat.

Lehenengo zatian egileak erakusten digu "Langilegoaren Aberria" den Estatu sobietiko hori nazioetatik eginiko super Estatu bat besterik ez dela. Orain arte Moskuko buruzagiek hizkuntza guztiak ofizialtzat onhartu dituzte errusieraren parean. Egun batez nazioaren kontzeptua itzaliko dela ustean. Leninen teoriari esker batasuneko nazio guztiak onhartuak izan dira, baina Georgia eta beste nazio batzuek indarrez integratuak izan dira. Geroago botorea hartu zuenean Errusia erakusten zuen "Biharko gizartea egiteko herri gidaritzat" eta guztiz logikoa iruditzen zitzaion Moskuko ideologia sartzeko bertako hizkuntzak onhartzea, errusiarri toki guztietan ofizialtasuna emanaz (orain dela hamasei urte frantses eskolatan irakasle batzuk errusiera etorkizuneko hizkuntza zela esaten ziguten) **Krutxev**en gobernuak askatasun gehiago ematen zien nazioei, ohiturak hobeki errespetatuz eta batasunaren barruan abertzaletasuna eta sozialismoa elkarrekin aurreratzen ahal zirelako tesia defendatuz. **Staline**kin egin dako krimenak eta deportazioak ere salatu egin zituen, baina aurrekoak bezalaxe **Krutxev**ek sinesten zuen kontzientzia sobietiko batek nazioak ideal bakar baten menpeak elkartuko dituela; XXI Kongresuan "Bertako Xobinismoak salatzen zituen eta XXII Kongresuan esan zuen, Marxismoari jarraituz, beharra ez dagoen erreinu aldearantz doan gizarte sobietatikoak ez duela zer ikusirik 1917 urteko nazio askodun gizartearekin, bere ustez 20 urteren buruan maila hori lortzen ahal zen, eta logikoa topatzen zuen nazio orotan errusiera jakitea.

Brejnev-en estatuan gaurregun problema nazionala sekular baino bi-ziago dela iruditzen da; abertzaletasunak indar asko dauka Caucaseko errepubliketan, nazio musulmanoetan eta lurralderik gabeko ethni taldeetan. Euskaldunen anaiak diren georgiarrak ditugu burrukalarik azkarrenak, hango intelektualak errusiartekaren aurka jartzen dira, eta herri manifestazioak eta burruka armatua eguneroko gauzak bihurtu dira. Juduak, nahiz eta nahiko

asimilatuak izan (% 17 judueraz mintzatzen da) eta Birobidjan deitu herrialde autonomo bat izan arren, emigratzeko baimena eskatzen dute; Judaismoaren berpiztearekin batean judu kulturaren alde burruka askotan dabilta. Volgako alemanak Alemaniara joateko baimena eskatzen dutelarik, Armeniarrek kanpoan dauden herriedekin harremanetan sartu nahi dute, eta **Staline**kin urrundu zituen tartarek bahi dute Krimerara itzuli.

dukitzeko eta nazio horien artean, erlijioa solidaritatezko lotura bat dugu. Marx begiratzen dute Buda eta Jesusen arteko profeta erdi bat bezala, eta bertako intelektualek errusieraren orde, arabiera nahi dute bigarren hizkuntzatzat.

Liburu honetan ez da Europako sartzalden maiz egiten den lege, antisobietismoa edo antikomunismoa sentitzen, baina egileak Sobietar Batasuneko kontestazio gogorra abertzaletasu-




Nazio askotan erlijioak abertzaletasuna berpizten du, hala nola katolizismoak Baltikoko herrietan eta Georgian, Budismoak Kalmyk taldean eta Islamak Asiako errepubliketan. Oroit gaituzten, hain zuzen, Islamak indar iraultzaile bat arabiar abertzaletasuna aurreratzeko eta orain Persian eman den iraultza islamikoak ondorio inportanteak izaten ahal dituela Sobiet Batasunak. Hain bizi diren 50 milioi musulmanak laster 80 milioi izanen dira eta erlijioak indar handia dauka Moskuren kontra ihar-

nean datzala erakutsi nahi digu. Bizigaren tokitik ikus dezakegu Ulsteren, Euskal Herrian, Katalunian, eta abarretan gertatzen den burruka ez dela Moskutik zuzentzen duten matxinada bat (Duela gutti Madrilan, Moskuko KGB-k ETAKoei laguntza ematen zela esaten zen) Hemengo agintariak sinestarazi nahi diguten lege. Baina gaur egun munduko bloke eta politikabide guztietan gertatzen ari den fenomeno berri bat.

SANTI LAFITTE

Gizaki



NAZIO ARAZOAK SOBREGASIA



Ez al zarete inoiz ikustera joan? Hantxe dago, Getariko portuan. Malekoiaren puntan. Itsasoari so. Lasai egon, halere ez da erraz itsasoratuko eta. Oroitgarri horren sendotasuna da hain zuzen ere, lehenbiziko atentzio jasotzen duena. Harrizko oin edo "pedestal" gainean sostengatzen diren bi hanka sendo haik. Besoak, lepoa... denetatik dario sendotasuna. Nahiz eta aurrera joateko itxura eduki, pertsona eta izaera guztia bihurtzen zaio azkenik oztopo eta galga. Lurrari tinko eutsita mantentzen dion aingura. Alde guztietatik gogortasuna eta sendaria. Semetxo bat beso batez sostengatzen duen bitartean, beste besoz bigarrenko haur itipi bat zaintzen du. Bi haurrak gizonezkoak, noski!

"Arrantzalearen Emaztea" oroitgarriari buruz ari natzaizue. Amatasuna eta emaztetasuna, garbien adierazten duen emakumeari. Pertsona bezala hartuta, andra gisa ikusirik, ba dirudi ez duela inongo garrantzirik. Bere aurpegi lehorrak, maskara bat bezala, ez du hunkipenik adierazten, ez inongo sentipenik. Presaka eta ardurarik gabe egindako gauza bat dirudi. Emakumeen adierazgarriak, amatasuna errepresentatzen duten heinean erabi-



MONUMENTU BATI BURUZKO GOGOETAK

liak dira: Bular tinko farregarriak, gerrri astunak... Garbi ikusten denez, monumentuak kontutan hartzen ahal duen gauza bakarra IDEIA da, adierazi nahi duena. Eta erabilkera horretan, emakumea bera, ideia hori estaltzeko, AZAL BAT besterik ez da bihurtzen. Mezua barnean doa: Gizarte honek eta guztien gainera defendatzen dituen segurtasuna, pazientzia, jasan-kortasuna eta sendotasunaren aldeko kantua... emakume ama, emazte parrakorra, familiaren zutabea, biharko arrantzaleen irauarazlea.e.a.

Handik metro gutxitara, hezur eta mamizko emakume batzu sareak josten ari dira. Lanean dihardute. Ez dakit, jakin, noizetan kaxak jelaz betetzen edo kaxa hutsezko karruak tiraz ikusi ditudan emakume berak diren ala ez. Ez dakit ez eta ere kaiko oroit-

garri hori atsegin zaien ala ez, baina errepresentatuak daudela zalantzan ipintzen dut. Alderantziz, ederki azaltzen du, gizonak emakumeei buruz daukaten zenbait irudimen. Oroitgarri horrek ederdi adierazten du arrantza-learen emaztearengandik espero dena. Monumentuaren helburua, beraz, hezitzaile eta ideologikoa bihurtzen da... Baina, tira! hau ere, ez da bitxitasun bat. Egun dauden monumentuetaz pentsatzen badugu, liburu ireki baten gisa gehienetan gauzak garbiki "esanak" daudela, ohartuko gara. Alfabetagabeentzat liburu. Eta hori dela bere helburua uste dut. Hezitzaile helburua, beraz.

Kultura moeta bati gizartearen barnean, bizirik mantentzea interesgarri zaizkion zenbait ekintza, pertsonaia edo eta balore irauarazteko eta goratzeko modu bat:

"Begira itzazue pertsonaia hauk... Ausartenak, azkarrenak..., azkarrenak... argienak... lurralde berriak aurkitu zituztenak... halako edo hone-lako legeal asmatu zituztenak... idatzi, margotu, zoragarri egin zutenak... Hitz batean esateko, ZERBAIT EGIN ZUTENAK.

Gizarteak, bere buruari ematen dizkion errepresentazio hauei jaramonik egingo bagenie, emakumeek ez dutela, ez lehen eta ez orain, ezertxo ere egin ondorena aterako genuke. Berez ez direla ezer.

Egia da, eme gorpu batzu azaltzen direla, gizon harrigarri batzuren monumentuetan. Gizonaren irudia apaintzen duten azal hutsak: Musak... edozer ideia erakutsi dezakeen eme irudia... Aberria, Legea, Jakituria, Zuzentasuna, Errepublikak... Baina emakumezko bat, emakume konkretu bat, hori gauza zeharo bitxia da. Zeren azkenean, bat topatzen dugunean ere, kasu Getariakoa, amatasun irudipenaren-pean gorderik azaltzen baita. Gaurko gizarteak onhartzen dion funtzio bakarraren babesean, halegia. Hildako semeak sostengatuz... edo bularra ematen dauden emakume irudiak. Aurpegiak beti berdinak... larriak edo harroak. Espresiorik gabeko mozo-rrak, emakume aurpegiak baino, ideiak eta koalitateak espresatzeko gehiago eginak...

Amatasunak garrantzi handia du emakume baten bizitzan. (Hau jakiteko, nor emakumea bera baino aproposagoa?). Baina ez da ahantzi behar pertsonak ere ba garela, sufritzen, lanean, maitatzen eta borrokatzen garen pertsonak. Gauza honetaz ezertxo ere ez dago monumentuetan ikusterik... Baina, zer demontre, beti gauza berdina esaten ari garela deritzot...!!!

Aipatutako monumentuari begiratzen diot berriro... Sareak josten ari diren emakumeak ere berrikustatzen ditut... argazki batzu atera eta nere burutapenekin beste nonbaitera abiatzen naiz. Nere gainera, patxadaz, kaio bat uraren gainean, unetxo bat gelditu ondoren, isas barnean murgiltzen da. Beldurrik gabe. Eta horrek kontsolatzen nau...

MARIASUN LANDA



Zerurako bidean neure heriotzaren egunean



Mundu honen gizaki guztiok, nahitaez, gorpu izatera deiturik gaude; eta ezin dezaket uler, zergatik hainbeste jende arduratzen den bere gorputza zaintzen, edo hilketaren bat gertatzen denean.

Ba ditugu ere, fededunak; batzuek amorratuak eta besteak sortutako beldurraren eraginez. Eta bai batzuek eta bai besteok, beti kezkatuak, obra onak egitearen beharra predikatzen zeruraino ailegatzeko.

Mila zalaparta, hamaika istilu hel-

bururik gabe eta azkenean konturatzeke, ziplo!, denok dugu ordua heldurik. Adibidez, nire heriotza 1982eko irailaren 11n gertatu zen.

Egun hartan, guztiz zorabiatuak esnatu nintzen eta ez nekien neure egoeraren karia, baina seguraski auresentimendu bat zen; nire bizitzaren muga, gizarte honen maluraren barnean, etortzeaz zegoelako dardada.

Gosaltzen nengoela, txirrinaren txistu ozenak sastada izugarri bat iltzatu zidan neure bihotzean eta dardaratzen

hasi nintzen, baina behin atea irekita, beldurra poza bilakatu zen eta barre egiteari eman nion gogo handiz.

Ate ondoan ez zegoen gizonik, ezta mamurik ere, baizik eta Heriok bidalitako hiltzerantz bidaiarako txartela. Goibel kolorezkoa margotua zeukan helburua eta erraz aditu nuen, bera nire oinazeen amaierarako irtenbiderik onenetarikoa litekeela.

Beharbada harrituko du norbait nire poztasun horrek, baina hinguindurik egotetik at, ba nuen beste arrazoi

bat; horrelako gauzak ez dira egunero gertatzen eta iheste bat suposatzen dute.

Txartela eskuartean neukalarik, denbora galdu barik, azken agurra eman nion neure buruari eta bide luzean astia emateko, Sabino Aranaren "Obras Completas" delako bilduma harturik, dena prest zegoen.

Zuzendu egin nintzen orduan, zeharo baikorra, kaleari zetxekion nire logelaren leiho batetara. Honela, leihoa, nire gorputza ezerezera jaurtikitzeko basea bihurtuko litzateke.

Gelatik kaleraino zenbatu ahal nituen zortzi metroak, apur bat arduratu arren, ezin nintekeen lipar hartan atzerantz itzul eta begiak hertsitu larrik, bota egin nuen neure burua.

Lehenengo ibilaldi hau, hitzetik hortzera amaitu egin zen, edo eta, bestela esateko, ez zuen hasierarik zeren behingoan gorputzak jasoriko minek zuritu ninduten horretaz.

Zoritzarreko lehenbiziko pentsamenduak urreratu zitzaizkidan ea hauspenik pairatu nuen, baina behin ezetz ihardetsiz gero, galdu egin ziren haizeetan sakabanaturik.

Saialdiaren hutsaren zergatiaz itauntzen nengokion neure buruari, minak gutxituz zihoazen bitartean, eta berehalaxe aurkitu nuen akatsa, Sabino Aranaren liburuen astuntasuna. Hori jakinik, utzi egin nuen liburuki bat (nahiz eta penaz) eta bigarrengo saialdiari ekin nion.

Oraingoan ez nuen behea jo eta abiadura ikaragarritz, zerurako "hilibidea" hartu nuen. Trajektuan, arima galdu batzuk "arima-stop"-a egin zidaten, baina beste liburuki bat ez galtzearren, ezikusia egin nuen. Pena handia izan zen, benetan, ardi galdu horietaz zerbait egitearen ezintasuna; ordea, neure integritatearekiko prezamen handia jarri zen garaile.

Inolako istilurik jaso barik, heldu egin nintzen azkenez zeruko "aingerutegira" eta arras txunditurik utzi ninduen ikusiak. Pentsamendu baten ezkerretako espaloian, aingeru gorriak eta eskuinetakoan zuriak ikusi nituen; hurrengo "zerutiar-hauteskundeetaz" eztabaidatzen omen zuten.

Halajaina! Hementxe ere holako erroiluekin? Ez al da berau anaitasunaren paradisu?

Bertan bera utzi leku hura eta zeruaren errainetan sartu nintzen. Hilotzezko "zeru-bide" batetik nindoala, antsiaturikako doinu zerutiarren ordez, bakartateak eginikako hutsa nentzuen bakarrik, are gehiago, ez zela ezer entzuten esango nuke.

Urrun-urruetan gauza zoragarri bat ikusi nuen. Haritz batzu (segur asko Gernikakoaren aiton-amonak) adarrak zabaltzen ezerezaren hodeietaraino, baina ez zeukaten historik, ez eta berdezko kolorea ere. Berau, nahikoa zen heriotza ikusteko neuzkan irrika guztiak deuseztatzeko eta baliabide bat presentatzea erabaki nuen. Ordez, Heriok bertso hauk kantatu zizkidan:

"Beti prest nago, hemen nahiz hor, iluntasuna zabaltzeko; nahi ez baduk egun etorri, bihar edo etzi maliko. Egia naiz, zintzoa oro, nire bizitzak ixilik; horrexegatik esaten diat, jadanik hago ia hilik."

Honez gero, ba dirudi Heriok ez duela barkatzen eta horregatixek, oraindik gaur, erdi-hilda diraut.

Karlos Santisteban



NAZIO ALDERDIAREN MYTHOA 2

Askotan aipatu izan da Aranaren ondoko Aranatarren aranismoa Sabino-rena baino okerragoa izan zela. Hau esateko, ordea, bataren eta besteen lanak irakurri behar dira astiro. Nik neuk, agian oker, elkarren artean nolakotasunezko baino zenbatasunezko aldea besterik ez dakusat, hogeikakoa izanik basko erdaldunentzat zailegia zela eta, euskal zenbakera aldatu nahi izatearen ondotik edozein gauza ontzat emon baitaiteke.

ARANOLATRIAREN SORRERA

Aranatarrei, zalantzarik gabe, Sabinok ez zeukan fanatismoa egotz dakieke. Haiantzat, Xabinok esaniko guztia —azken ordukoak salbu— fedezko legea bihurtu zen. Beren alderdiaren fundatzailea, laster, euskal nazioaren aita egin zuten. Abusu eta itsukeria hori zela eta, Kanpionek, bera PNVkoa izan arren, halkoengatik aranolatrak esaten zuen, fanatikotzat harturik.

Hark asmatuiko euzko, Euzkadi, euzkotar, euzkera eta beste, Sabinok hor inoiz gogorregi egin ez arren, alderdiak bere idazkietan gure nazioaren izen eksklusiboak bilakatu zituen, ordurarte-koak kontsignaz espreski galerazirik. Modu honetara, Arana Euzkadi-ren sortzailea zen, baina izenarenaz batera, Sabinori Euskal Nazioa sortzeko meritua ere gaineratzen zitzaion, meritu hori, errebotez, PNVrena izanik. Haren jagitze mesianikoari esker, hortaz, hemen nazio berri bat sortu zen, lehendik zegoen eta zetorrenak bere izen propioa zeukanez gero, hura estali eta sortzaileak aukeraturikoaz birbataiatu beharrekoa. Aranak kontsakturiko Euzkotarren aberria Euzkadi da.

Hori dela eta, historikoki existitu izan zen nazioaren tradizio osoaz apurtzen zen, baina horrek ez zuen ardura. Kontua alderdi mesianikoaren meritua azpimarkatzea eta haren protagonismoa auzatzea besterik ez zen. Zer axola, gainera, alderdikeriak azko arazo nominalista batez karlistekin hausten bazen (eta orain arte Nafarroa eta Arabako populazio zabalez!), eta funts gabeko izen berria zela eta, euskaldunon etsaiei, gaur arte, Euskadi delako euskal nazio horren ezexistentzia historikoa behin eta berriz aipatzeko harma bikaina eskaintzen bazitzaien. Munta zuena alderdiaren sloganak mythifikatzea zen.

PNV-REN SYMBOLOAK: NAZIOAREN SYMBOLOAK

Bide honetatik abiatuz, Sabinok PNVrako asmatuiko Euzko Abendea-

ren Ereserkija, Alderdiaren hymno ofiziala egiteaz gainera, Euskal Nazioarena ere dela esan eta esaten dute jo eta ke, Gernikako Arbolaren kaltean.

Ikurrinari doakionean, PNVek ez du hura alderdiaren bandera ofiziala inoiz bihurtzeko asmorik eduki, baina gaur arte bandera hori darabilten bakarra da, de facto alderdiarena bailitzen, Euskal Herrian bandera propiorik ez duen alderdi bakarra izanik (Fuerza Nueva-koak ez daude, beraz, hain bakarrik). Beren alderdiko Zazpiak bat halaber, nazioaren simbolo ofizialtzat agertzen dute.

GERRAURREKO HEGEMONIA

Euskal Herrian euskaraz, modu organizatu batez bederen, inor guxti arduratzen zenean, PNVek bere hizkuntz eskola pitxi eta fantasiosoa eduki eta bultzatu zuen, itsuen herrian betokerra errege izaten delakoagatik, horrela bere terminologia, zuzen zein oker, pixkanaka sartuz: ikurrina, lehendakari, ikastola, euzko, ertzain, jaurlaritz, Aberri Eguna, Bizkai Buru Batzar, batzoki, gudari, etab. Izen horietako asko, giro hartan jaiotako izakiekin kontsaturatu dira, baina ia beti PNVren kutsu bereziaz. Esaterako, batzoki, ikurrin, ikastola edo gudari ez dira klub, bandera, eskola eta soldadu hitz zabalagoen euskal konkretapenak baizik, eta horrela, synonymoak ez direlako, ezin esan daiteke, kasu, Espainiako ikurrina, frantses gudariak, PSOEkoen batzokia edo eta Txinako ikastolak.

Politikan, paraleloki, PNVek izan zuen 1936.eko Euskal Gobernuan partaidetasunik haundiena, Agirre lehendakaria alderdi horretakoa izanik. Guzti horregatik, triunfalismo errazaz, PNVek, praktikan, Euskal Gobernu eta bere Alderdia gauza bera bailiren zerbiltzan, hartan beste alderdi batzu ere (PSOE, PCE, ANV...) ba zirela ahantzirik.

GERRA ONDOKO GIROA

Gerra ondoan, aldiz, Euskal Herrian ezkerreko ideologia bat sortuz joan ahal, PNVren hizkuntz hegemonia galitzen hasi zen. Idazle gazteak, literatura berriaren sortzaileak, PNVetik gero eta urrunago zebiltzan, eta beraien hizkuntz eskola berriaren ondorio, bai garbizalekeriaren ukoa eta bai literatur euskara batu nazionalaren finkatzea izan dira, PNVek, bere inhibizio ofizial eta bertako kide askoren oposizio gogorraz, luzaro —gaur arte!— ahalik eta oztupo gehien jarri arren.



Euskaltzaindian jeltkideen nagusigoak, garai honetan, problemak ekarri zituen, Azkueren heriotzaz gero bereziki. Alde batetik, Sebero Altube moduko kasuak salbuespenak izan baitziren, lehengo joera puristei eutsi nahi zieten, eta bestetik, PNVeko kide euskaltzale egoki zein desegoki guztien sartze bultzatzen, ideologia hori ez zuten pertsonen sarrera behaztopatzen sailatuz. Hortik dator, hain zuzen ere, gaurko Euskaltzaindian sasoi hartan izendaturiko hainbeste lagun egotea, izenez laguntzaile diren arren, Akademia ezertan ez laguntzeaz gainera, gure lehen erakundeari era guztietako eragozpenak ipintzen ahalegindu eta ahalegintzen direnak, Akademia paraleloak sortzeraino helduz.

Euskarari dagokionez, PNVek betidanik erakutsi du sektarismo nabaria.

Morrontza feudaletik irten zirenetik, ezjakintasun, degradapen eta miserian murgildurik bizi izan ziren langile klaseak, aristokrazia ororen handitasunerako tresna pasibo gisan langile klaseak, zerbitzatuko duten, beraien lepo mardul eta zuharren gainean odol urdinezko gizonen despotismo usteltzailea sostengatu duten, nahiz aintzinako jainkozko jatorrizko dinastiak nahiz iraultzaile jatorrizkoak sostengatzeko beraien odola zozokiro ixuri duten langile klaseak. Kanoi haragia konkistatzaileen eskuetan, ikatz, zilar edo zilarbizi meatzetako haragia espekulatzailen eskuetan, pasta biguna espekulatzailen eskuetan, nortzuri egunero beraien duintasuna, askatasuna eta politikazko eskubiderik preziatuenak, beraien odola bera, malko mingotsez bustiriko ogi zati baten truk saldu behar izan baitzkie. Orain elkarte hastapena zientifikoki erabiliz, hori barik ez baitago gizonarentzat inolako segurtasunik eta beraz, ez eta askatasunik, inoiz mendeak ikusi gabeko birdortzerik erabateko, erradikal eta orokorrenerako prestatzen dira. Beraien era guztietako elkar-goak milaka askotan kontatzen dira jadanik nazio zibilizatu guztietan, milioika kontatzen dira beraien kideak eta, beraz, ardurak, irainak eta pribilegiadun klaseen interes maltzurrek eraikiriko barrerak erori doaz nonnahi.

Mila urtetik gora iragan dira esklabutza gauza normal izatetik desagertu zela. Laurehunetik gora ere, esklabutza ordezkatu zuen morrontzak proletalgoari tokia utzi ziola eta urte asko dira proletariak gizon aske bihurtzeko eginahal handiak egiten dihardutela; eta, hala ere, ez esklabutza, ez eta morrontza desagertu dira guztiz, oraindik munduko atal handi batetan, Afrikaren zatirik handienean eta sortaldeko lurralde neurri-gabekoatan subirano gisan baitiraute, harriturik baileuden, guztiz aintzinako erlijio fatalisten menean. Guzti honek derakusku, nola nahiz eta banaka eta lekaturik kontsideratzean gizarteak egindako aurrerabidea handia izan, beraren moral, material, sozial eta politikazko aurrerapenak munduko punta batetik bestera zabaltzeko ibili beharrezko bidea luzea den eta baita ere, nola ideien eta produktuen elkartrukea eta enda guztien nahasketa espontaneoa erraztuko lituzkeen Suez eta Panamakoak bezalako istmoak zabaldurik eta lurgloboa ubidez, trenbidez eta telegrafoz inguraturik ere, belaunaldi askoren lana beharko den morroi lana eta aberastasunaren ekoizlearen esk-

Masak ala eliteak (V)



labutza, beraien ondorio guztiekin, toki guztietatik desagertu arte.

Ikusi dugunez, gizarte kapitalistan herriaren eta, batez ere, proletalgoaren eragina ohigabeki handitzen da. Kapitalismoak gizartearen aurrerapena nabarmenki zituen. Historian lehenengoz, sozialismorako bidean, bere tendentzia ezberdinetan, langile eta masa mugimendua sozialismoranzko bidean gidatzen saiatzen diren liderrak sortzen dira. Makinerian oinarrituriko industria handiaren sorrerak langileak handiki kohesionatu zituen, zenbait ezagutzaz hornituz batera. Eta, langileen kontzientziaren goratzearekin, prozesu historikoan beraien papera aregotu zen. Azken berrogeitahamar urteetan munduaren gain askatu zen sozialismorako eta nazio askatasune-

rako iraultzen ekaitz garbitzaileak, ekintza iraultzailearen gorakada arina kondizionatu zuen eta bere eragin politikoa indartu zuen nonnahi. Munduko jendetzaren gehiengoak, erremarkatu zuen Leninek mende honen hasieran, "itzartu eta potentziarik indartsu eta ikaragarrienek ere ezin geldi dezaketen mugimendu bati hasiera eman dio".

ESTATUAREN SUNTSITZEA

Eginkizun honen burutzapenaren zailtasunak ez ditu belaunaldi gazteak beldurtu behar. Aurretik aritu ziren belaunaldiak baino ilustratuagoak, beraien misioaren kontzientzia dute jadanik eta zihur egon daitezke beraien ahaleginen ondorioz, tokatu zaien lana sortzen ikusiko dutela, zeren eta gehiago aurreratzen baita gaur hamar urtetan, beste denbora batzuetako ehunetan baino. Gizonaren produktuzeko ahalmenaren areagotzea, beharizan eta txirotasunaren suntsitzea itzuli behar izan zitekeen. Baina, haatik, ez da hau izan ondorioa, zeren eta errealitatean, urritasuna baitager oparotasunaren erdian, txirotasuna aberastasunaren erdian. Derrigor egon behar ondo ez doan zerbait tamaina horretako kontraesanengatik karakterizatzen den sistema ekonomiko batetan. Eta ba dago. Sistema kapitalista, inefikaz, errekurtsu eta baliakizun zarrastel eta bidegabekoa da. Inefikaz eta zarrastel da, zeren eta potentziarik gorenean ihardun duen urteetan ere, mekanismo produktiboaren bostgarren zatia gutienez erabili gabe baitirau.

Inefikaz eta baliakizun zarrastel da, krisi periodikoak jasaten dituelako eta hau gertatzen denean, ez da bakarrik bostgarren zatia baizik eta baita produktio ahalmenaren erdia ere alfer eta lanik gabe dirauena. Inefikaz eta baliakizun zarrastel da, ez delako lan egin nahi duten guztiei lanpostu baliagarri bat emateko gai, fisikoki eta intelektualki gaituriko milaka pertsona inoren lanetik bizi daitezela uztearekin batera. Inefikaz milaka pertsona inoren lanetik bizi daitezela uztearekin batera. Inefikaz eta zarrastel da, ez produktio prozesuan, ez eta banaketan parte hartzen ez duten, baizik eta publizitate agente, salmenta eragile eta gisa horretako zereginetan ari den jende kopuru eskerga baten enpleguan. Inefikaz eta baliakizun zarrastel da, haue-tariko eta gizonetariko asko luxu artikulurik pitxienean produktiora destinatzeagatik, eguneroko bizian benetako premia duten ondasun asko eta asko produktuzeari uko egitearekin batera. Inefikaz eta baliakizun zarrastel da,

zeren eta, batez ere prezioen gorapena eta errentabilitatea bilatzen duenez, giza premien asetzea bilatu beharrean, uzta eta era guztietako ondasunen desegintza deliberatua posiblez-tatzen baitu. Azkenez, inefikaz eta baliakizun zarrastel da, periodikoki gerrara eramaten duelako, bizitza bera gupidagabeki suntsitzen duen gaitz horretara. Zergatik ez dira langile guztiak bat-batean altxatzen? Zerk eragiten hainbat beldurren ukaitea? Zer errepresio tresna du burjeseriak, kapitalak, bere boterean, hain beldurgarri dena langileentzat? Ba dago gutirentzat hain eroso eta gehiengoarentzat hain kaltegarri den jabego harreman sistema bat mantentzea posiblez-tatzen duen erabide bat. Ba dago botere askidun erakunde bat, gutiengo probilegiatuak gehiengo langilearen gain ezarritako sozial eta ekonomidominapen sistema honen defentsa beregain hartzen duena. Erakunde hau Estatu da, beraren funtzioa, klase kapitalistari langile klasearen gaineko dominapena permititzen dion jabego probatuzko harreman sistema defendatzea eta mantentzea izanik. Estatuaren funtzioa, klase baten beste batekiko zapalkuntza sistema defendatzen datza. Sozial klaseek dirauten bitartean. Estatu ezin da beraien gain egon, alde-rantziz, klase nagusiaren alde egon behar du. Legegile eta lege horiek defendatzen dituzten interesen jabeen arteko loturak hain dira hertsia, Estatu eta dominatzaile klaseak lotzen dituen harremanari buruz ezin dela zalantza izpirik ere egon. Estatu izanik klase batek batekiko zapalkuntza ezarri eta mantentzeko tresna, indarke-riaren erabilketaraino heldurik askotan, ezin daiteke benetan egiazko askatasunik izan zapalduko gehiengoarentzat. Estatu, Gobernu kontrolatzen duen klasearen erabakiak ezarri ahal izateko dago. Gizarte kapitalistan, Estatuak, klase kapitalistaren erabakiak ezartzen ditu. Erabaki horiek sistema kapitalista, non langile klasea produkzio medioen jabeen zerbitzuen lan egin behar duen, mantentzea dute helburu. Horrela, iraultza guztietan masa iraultzaileen helbururik oinarrikoenatariko bat burjeseriaren aparatua lurreratzen datza. Estatuaren lurreratzea iraultzaren garaipenerako beharrezko diran baldintzetariko bat da.

Gaurregun Herri burjesetan bizimodu hobatzeko, askatasun demokratikoak lortzeko, lurlean bakea gordetzeko, etab., burruka euskor bat libratzen duten masa herritarrek, Herri horien barne —eta kanpo— politikan



eragin serio bat dute. Gizartearen bilakaeran zehar masen paperak duen gorapenari buruzko Marxek aurkituriko legeak, greba mugimenduan urterik urte nabarmentzen den gorakada hazkorrean aurkitzen du, adibidez, bere adierazpena.

MASAK SOZIALISMOAN

XIX eta XX mendeetan zehar masa herritarren papera izugarriro handitu da. Lehenengotan, uztari zapaltzailea apurtu ahal izateko ideiarekin eta, une orotan, pertsonaren independentzia eta askatasuna mantentzeko asmoz. Masen protagonismoak lortu duen mailarik gorena gobernamolde sozialistan kokatzen da, gobernamolde honetako politikazko, ekonomi eta ideologi harremanek eragina berori. Historian zehar masen paperak duen gorakadari buruzko tesi marxista era kreatzaile bat bilakaeraziz, Leninek egokiro deitu zuen oharpena lege honen ekintzaren beste aurpegi batetaz: Zenbat eta zabalago izan historiaren sorketan parte hartzen duen jendetza, hainbat eta gehiago aldatzen dira kualitatiboki gertakizunen mami eta izaera. Zenbat eta handiago izan kontzienteki historia egiten duten masen kopurua, hainbat eta gehiago arintzen da sozial aurrerapenaren erritmu. Horregatik prezeski, gure denboretan, gero eta milioika gizon gehiago historiaren faktore eragile bihurtzen direnean, erritmu hori bizitu egiten da.

Masek historian jokaturiko papera gobernamolde sozialistan hazkorki bilakatzen dela ondoriozta dezakegu, beste edozein denboratan susmaezinezko mailak lorturik, baina beti eta une orotan historiaren protagonista izanik. Masa herritarre sorpen historikoan duten parepa sozialismoaren kondizioetan altxatzen da bereziki, beronek eskaintzen baitie lehenengoz beraien indar sortzaileak hazi eta prak-

tikara eramateko aukera, sozial interesean eta interes indibidualen konbinaketa posibleztatzen duen era berean, herria, ez bakarrik balio material eta izpiritual guztien egile bezala, baizik eta beraien jabe bakar bezala ere agertzen baita. Sozialismoan, herritar masek produkzio materialean duten eragin dezisiboari, lantegi. Estatu eta gizarte arazoan gestioan beraien partehartze eragile eta aktiboa gehitzen zaio. Herriaren sorketa inizatiba hemen ere, batez ere, komunismoaren produkzio material eta teknikoan azaltzen da. Nola eratu behar dira masak iraultzan? Egoera bakoitzaren heldutasun edo helgabezia objektiboa alde batera utzirik, sozialismorantz heltzeko hartu beharrezko bideak iluntasunez inguratua dirau. Sozialismorako bidea eta bere egitura, kapitalismoan jadanik aitziniruditu gisan agertzen dira. Marxek berak ere gizarte sozialistaren izaerari buruz oinarriko ohar guti batzu baizik ez zituen utzi, zeren eta efektiboki, ez baita oso produktiboa etorkizunaz, orainaldi eta iraganean sartu gabeko gertakarietaz aritzea. Haatik, Marxek argi utzi zuen sozialismoak ez duela Estatuaz, baizik eta gizarteaz ihardun. Sozialismoak, "ekoizle aske eta berdinen elkargo" bezala, Estatu, hau da proletalgoaren diktadura behar zuen, bere finkotasuna lortu arte bakarrik. Sozialismoaren finkapenarekin proletalgoaren diktadura, Estatu gisan aditurik, desagertu egingo zen. Sozialdemokrata kontzepzioan, nahiz erreformistan nahiz iraultzailean orde, estatar eta sozial kontrolaren identifikapen bat dago eta "edoizle aske eta berdinen elkargoa" esaerak bere jatorrizko esangura galtzen du. Etorkizuneko sozialismoaren bereizgarriak, kapitalismoan edukiak jadanik, ez ziren ekoizleen produkzio eta banaketarekiko autoeratzeko ahalgarrian ikusiak izan, baizik eta kapitalismoaren ezauzgarri tipiko diren kontzetrapen eta zentralizapen joeretan, zeintzuk azkenez ekonomia eta politikaren eskera guztiekiko estatar domeinua sortera-ziko baitzuten. Erakundi iraultzaileen gabetasunetariko bat, agian handiena, produkzio eta banaketaren eraketa sozialista batekiko beraien zereginei buruzko ideia argitasun eza izan da. Erakunde horiek beraien oinarria lantegi eta landetan izan behar dute, hau izan behar dira sozial koordinakuntza eta bizitza ekonomikoaren sintesiaren abiapuntuak eta berorietan, edoizleek produzitzen dutena eduki ahal izan behar dute.

Lau filme... (Charlot, Jabberwocky)



Epopeia burlesko bat

Charlot miresgarria da behin eta berri ikusi izan arren ere, anekdotez eta istorioez aparte ere pertsonaiak ba delako halako izakera koherente eta xarmant bat. Charlot bagabundoaren baitan errealitatea eta fantasia, gizartea eta gizabanakoa, gertaera aparta eta kotidianotasuna, bozkarioa eta tristura, errogabezia eta sentikortasuna biltzen dira. 1889an jaio eta hogeigarren mendearen lehen erdiko mito da Charles Chaplin, bufoia, bere gizatasunaren poetikotasun sakonaz.

Aipatzen ari garen filma 1923an egin zuen, bere osparen gailurrean jadanik, United Artists konpainiarekin: "The gold rush" deritzo eta Alaskako urre bilatzaileen bizimodu efimeroaz da gaia. Charlie Chaplin Charlot da filme hon-tan ere. Clown zapatak, sonbreiru onddoa, galtza zabalak, xaketa hestua, bibote beltzaran eta makila elastikoarekin abiatzen da berea ez den lurralde eta

giro batetan barrena. Izan ere gizarte orotan soberazko den pertsonaren irudia baita Charlot, bagabundo patetiko bat alegia. Honela doa mundutik, bufoi baten antzera, oinazez oinaze, irri eta malkoaren ateka gaitzak zeharkatuz, tragikomedia kotidiano bat ehotzen bezala.

"The gold rush" (1923) hau ere Charlie Chaplinen beste filme gehienen estilokoa da. Eta obra xarmangarri ororen akatsa du, laburregia dela alegia.

Laburregia dela esatea gorespen bat da noski. Baina, hala ere, guk ikusi ahal ukan dugun bertsiok (La quimera del oro, gazteleraz) ba du beste akats handi bat: sonorizazioa. Filmea mutua izan arren, elkarrizketak erantsi dizkio, piano musika maiz kendurik. Honela, filmeak irabazi beharrean galdu egiten du asko, hain hortera eta soberazkoak baitira textuak, filmaren espresibitateari erantsiak.

Miklós Jancsó sortaldeko zinemagintza berriaren aintzindariarik bat da. 1921ean jaio zen Vác delako herrian, Hungarian. Etnografo, historiagile eta dokumentalista izan da, eta bere zinemagintzak, sozialismoaren barnean beti, ba du halako estilo berezi eta propio bat.

Bere filmak errealismo historikoaren alorrean dira planteiatuak. Ezagunak dira: "Etsituak" (1967)¹, "Isiltasuna eta oihua" (1967), "Haize dizdiratsuak" (1968), "Gorriak eta Zuriak" (1968), "Neguko Sirokoa" (1969), "Agnus Dei" (1971), "Salmo Gorria" (1971) e. a. zinetan zinemagintza errealista sozialista historiko politiko bat hasten baita lantzen estilo arras berezi batez. Ezaugarri teknikoak du Jancso-ren zinemagintzak plano gutxi izatea, hots, denbora ez fragmentatzea eta denbora uniforme bat izatea. Ondorioz, Miklos Jancso areago da politikoa historikoa baino, bere obrak areago bilatzen du errepresentazio bat signifikazio bat baino. Esan nahi dut, ilusio zinematografikoa ezabatu egiten duela eta errepresentazio etengabe bat aurkezten, teatroan bezala denbora erreala eta denbora zinematografikoa hurbildurik.

Ikusi ahal izan dugun Miklos Jancso-ren azken pelikulak ere ezaugarri estilis-

tiko hauxek ditu. "Vizi privati, publice virtute" deritzo eta 1976ko koprodukzio italo-yugoslavo bat da. Mayerling arazoan inspiraturiko filme bat da, hemezizigarren mende aristokratiko batetan ambientatua.

Prinzipio batek uko egiten dio bere aita-enperadorearen autoritateari eta gazteri aristokrataren orjia promiskuo eta erraldoi bat antolatzen du; hiltzeko agindua emango du azkenean enperadoreak.

Kritiko batek esan izan du Jancso-ren filmeek trageria grekoaren kutsua dutela. Izan ere errepresentazio edo zeremonia gisakoak dira bere filmak, interpretazio oreka eta preziosismo formal harrigarrikoak. "Vizi privati, publice virtute" hau bere aurreko filmak bezain politikoa ez, baina arras erotikoa eta dizdiratsua da.

Miklos Jancso-ren filme hau, beraz, errepresentazio edo zeremonia erotikoa eta sozial xarmangarri bat da. Luza-roaz zerbait astuna egiten bada ere, filme ikusgarri, entzungarri eta hunkigarri bat da.

¹ Filme honen kopia bat ikusi ahal izan genuen, euskarazko azpihitzak zituela, arras ondo ipiniak.



Vizi privati, publice virtute

Miklos Jancso, Raymond Chandler)

JABBERWOCKY



*The JABBERWOCKY,
a vile and vicious monster,*

is ravaging the medieval kingdom of King Bruno the Questionable, devouring and terrorising the miserable peasants in the lands outside forcing them to flee inside the city walls where they are in turn exploited by unscrupulous merchants, charchmen and traders.

Filme ingles bat da beraz eta Bretaina Handiko tradizioak izandako anitz munstroetatik bat da filmaren motiboa.

Bruno erregeren gaztelura aldegiten duen mutil bat da protagonista eta han zenbait gertaera eta torneoren ondoren, kasualitatez, Jabberwocky munstroa hil-

ko du, heroe bihurtu eta erregeren alaba xarmantarekin ezkondu beharko da nahigabea.

Filme honen direktorea Terry Gilliam da. Irakurleak jadanik izan dukeenez Erdi Haro mitikoaren parodia da, gizarte mediebalaren eta kabaileriazko istorioen satira bat, Jabberwocky munstroaren presentzia inmateriala delarik filmaren funtsa.

Hala ere, istorioaren eta gaiaren posibilitateak ez dira futsik ere probetxatzen. Lewis Carroll idazlearen ipuin batetan inspiratua den arren adaptazioa oso desegokia da. Anekdotak azalezko batzutan galtzen da filma eta noizbait barregarria bada ere, komizitate hau finkatu beharrean aspergarri bihurtzen da progresiboki.

Filme honek ba ditu meritu batzu, fotografia eta ambientazioa ikusgarriak dira. Baina orohar arras ahula eta aspergarria da.



The big sleep

Nobela poliziako beltza Dashiell Hammet eta enparauen idazlanez sortu zen mende honen bigarren dekadaz geroztik, nobela poliziako tradizionala zegokion soziosistema gotorrean integraturik. Raymond Chandler serie beltzeko nobelagilerik interesgarrienetariko bat da bere Philip Marlowe detektibearekin eta 1939an idatzi zuen bere nobelarik ezagunetarik bat, "The Big Sleep" (Amets eternala, El sueño eterno). Literatura beltza zinema beltza bihurtuko zen laster eta Raymond Chandler izan zen adaptazio honen autoretarik bat.

Zinema beltzaren bilakaera azaldu daiteke arrazoi psikosozialengatik. "The Maltese Falcon" filmak, John Huston-ek 1941ean egina, markatzen zuen zinema beltzaren susperraldia eta, ondoren, serie beltzean anbigüitate moralak eta gizartearen deskonposizioa azaltzen da, eta Humphrey Bogart izanen da USAko konformismo eta idealizazioaren kontrako prototipoa.

"The big sleep" (1946), Howard Hawks zuzendariak egina, zinemagintza beltzaren klasiko bat da. Chandler-en

nobelaren adaptazio hau, ez subjektiboa nobelan bezala, baizik eta arras objektibista da, eta intriga enigmatikozkoa.

Nobela honexen beste adaptazio zinematografiko bat agertu da oraintsu, hau da, Michel Winner zuzendaritzat eta "Detective Privado" gaztelarazko titulutzat duena. Lehen bertsioa baino 30 urte beranduago eta molde arras desdinez egina.

Derrigorrezkoak dira diferentziak, garai diferentziagatik baino ez bada ere. Baina batzu harrigarriak dira. Esate baterako, ambientazio desberdintasunak: batean Los Angeles 40ko dekadak, beste hontan Londres 70 dekadak. Filme hontan ez da azaltzen, beraz, serie beltzaren ohizko ambientazio itzaltsua. Bestalde, filme hontan nobelan eta lehen bertsioan baino garrantzi gehiago ematen zaio argumentu eta intrigari, giro eta psikosozial aldeari baino gehiago alegia.

Hala ere, akats eta indideltitate hauek eta guzti, filme arras interesgarri bat da Chandlerzale ororentzat.

Bost "Maria" euskal eliza batentzat



Joan María Uriarte



José María Zirarda

Jose Maria Zirarda, Jose Maria Larrauri, Luis Maria Larrea, Jose Maria Setien eta Joan Maria Uriarte: bost apezpiku Hego Euskal Herriko lau Diozesietarako. Maria Birjinak gorde dezala Euskal Elizal Bosten arteko agiriaren bat izenpetuko dutenean, aspergarria gertatuko zaigu izen guztiak irakurtzea, hainbeste Maria artean.

KRISTAU HERRIAK EZ DU PARTERIK BERE APEZPIKUAK HAUTATZEAN

Oraingoz behintzat Euskal Elizaren goi-hierarkia osoturik gelditzen da. Ez dugu uste berehalakoan apezpiku laguntzaile herririk bidaliko zaienik lau diozesiotako tituludunei. Apezpiku berrion izendapean oso ixilean pasa da. Zergatik? Alde batetik, inguru osoa eta prentsa bera hauteskunderen zurrumbiloak hartuak zeuzkan. Baina, bestetik, betiko sistemaren bidetik etorri dira apezpikuon izendapenak: hau da, Eliza katolikoaren goitik-beherako sistema hierarkikoaren bidetik. Apaiz aukeratuaren batzuri kontsulta modukoren bat egin, goi-hierarkiaren joerak —eta inoiz eritzia— ikusi, indar politikoen eta sozialen egoera neurtu: horrela lurralde prestaturik dago, Vatikanok bere Nuntzioaren bitartez apezpiku berria hautatzeko eta izendatzeko.

Kristau herriak ez du parterik bere apezpikuak hautatzean. Azken Kontzilioak dozena bat urte bete ditu; baina alde horretatik berdintsu irauten dugu. Ixilpean eramaten dira kontsultak; zurrumurruren batzu zabal erazten dira. Eta azkenean, ia beti ustekabean erortzen zaio kristau herriari bere apezpikuaren izendapena. Horrelaxe gertatu da oraingoan ere; kristau herriak ez du ardurarik jarri, ez izendapenaren aurretik eta ez ondoren ere. Oso zaila izango da ardurarik sortzea, horrelako izendapenak eta hautaketak Eliz aparatuaren barruko mekanismo konplexu eta arrutikoen bidez egiten baldin badira. Segurasko, ez da aski, horrela hautaturiko apezpikua gero kristau herriarenganaltzen saiatzea; herriaren hurbiltzeak eta parte hartzeak, bere apezpikuaren eta bestelako artzaien hautatzean bertan oinarritu behar du. Horretarako Eliza katolikoak partaidetza-sistema berriak sortu beharra dauka.

EUSKAL ELIZAREN ERAIKUNTZA INSTITUZIONALA

Dena dela, hor daude Euskal Diozesietako apezpiku berriak. Eiz Euskal Elizarentzat garai garrantzizkoaren aurrean gaude. Nolabait datozen urteetan bideratu beharko da Euskal Eliza-

ren eraikuntza instituzionala: Hego Euskal Herrikoarena behintzat. Horretarako apezpikuok izango dira protagonistak.

Eragozpenik ere izango da, zenbait indar politikoren eta sozialen aldetik, eta horrelakoei lotuta dauden Eliz jendeen aldetik ere bai. Adierazgarriak dira azken asteotan gertatuak.

Espainiako Apezpikuen Konfederentziatik euskal lau Diozesien egituratze berriaren asmoa zabaldu zeneko, gogor altxatu ziren Nafarroako indar "nafarristen" protestak. Beren eragin osoarekin jo zuten Madrilera eta Erromaraino; eta Nafarroako prentsaren bitartez batez ere gogoz astindu zuten Zirarda Jn.a. Ba zirudien asmo hura atzeratzea lortua zutela.

Beren presioak indartzeko, eta behar bada asmo hura lurperatu nahian, Setien eta Uriarte Jn.en kontrako erasoari ekin zioten gero, Madrilgo prentsez ere baliatuz. Biolentziari buruz euskal Elizaren jokabidea zela eta ez zela, beste haxe nahi zen segururik: bi apezpikuon itzala iluntzea eta zikitzea.

EUSKAL PROBINTZIA

Ba dirudi, oraingo honetan Elizaren Hierarkia ez dela bereziki bildurtu eraso horien aurrean, eta bere askatasunari eusten jakin duela. Izan ere, eraso guzti horien ondoren, eta kanpaina horixe ixildu bezain laister, etorri dira hiru apezpikuen izendapenak. Kanpaina horien egitekorik nagusia Setien Donostiako Diozesiatik ateratzea zen, edo gutxienez bertako Apezpiku titulduna ez izendatzea. Hala ere, ez dute lortu, eta Setien Jn.a da Donostiako Apezpiku berria. Uriarte ere Bizkaitik atera nahi bazuten, ba dirudi honek Apezpiku laguntzaile izateari eutsiko diola.

Kanpotik etorri diren bi apezpikuak, Larrauri eta Etxebarria, euskaldunak dira. Kontuan edukiz, Zirarda ere euskalduna dela, seguru asko esan daiteke mende askotan lortu ez dena gertatu dela gaur Euskal Herriko Elizan: hau da, bertako apezpiku denak euskaldunak izatea. (Hala ere Baionakoa ez da

euskalduna; baina Hegoaldeaz ari gara oraingo honetan.)

Baina historia historigileentzat utziz, garrantzizkoa zera da: hiru apezpikuen izendapenak Euskal Eliza instituzionalitzeko duen garrantzia nabarmentzea.

Egia da, Zirarda Espainiako apezpiku-Konferentziaren buruordekoa dela; alde horretatik, Espainiako Eliz Instituzioei lotuegia dagoela iruditzen zait; eta ez dut uste, Madrilen daukan karguak Iruñako eta Euskal Herriko Eliza eraikitze laguntza handirik emango dionik. Baina, hala ere, azken izendapenek zuzenean Euskal Eliz Probintziaren asmoa indartu eta finkatu nahi dute. Probintzia hau eraikitze, eta horrela Euskal Eliza instituzionalduz joateko, hiru apezpiku berriak gizon egokiak dira, seguru asko. Hemen bertako prentsak horrela ulertu du horien izendapena.

Eta seguruenik pixka bat suspertu egin da, Euskal Elizaren aldeko burrukan azken urteotan ahalegindu direnen esperantzak.

Paulo Agirrebaltzategi







José María Setien



José María Larrauri



Luis María Larrea



CAJA LABORAL

*Euskadiko
Rutxa*



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**



Harrisburg

IBERDUEROK INFORMATU EGITEN DU (sic)

Iberduerok interes handia bide du jendea "informatzeko". Horrela dirudi behintzat, hainbestetan egiten duen propagandak. Propaganda bezala ordainduriko "informazio" hori, noizean behin agertzen da Euskal Herriko egunkarietan (Bilbokoetan batez ere). Izena bera ere nahiko harroa: "Iberduero informa" (erdaraz noski).

Gauza ezaguna da, edo izan behar luke bederen, informazio objektibo hutsa ez dela inon ematen. Mito bat dela hategia. Azken batez, gaur eguneko informabideetan, helburu baten menpean jartzen da informazioa. Iberdueroren kasuan, argi denez, zentrale nuklearraren aldeko propaganda egin nahi da, Lemoizeko zentralearen aldekoa prezeski.

Objektibitate absoluturik ez dago, beraz; arazoa noren alde jartzean datza. Eta artikulu honen egilea zentrale nuklearraren aurkakoa denez, eta Lemoizeko

zentralearen aurkakoa gainera, normala da beronen "informazioa" ere objektiboegia ez izatea. Baina, edozertara ere, alde zuzenetik abisatzen dut, gero prometituta ez dudana gauzarik inork eska ez diezadan.

Ba ote zenekiten?

- Ba ote zenekiten zentrale nuklearraren defenditzaileen eritziz, istripu handi txoak hamar mila urtetan behin baino gehiagotan ezin gerta daitezkeela?
- Ba al hala ere, azken urtetan era askotako istripuak, kantitatean eta mailan, gertatu direla?
- Ba ote zenekiten, Harrisburg (Ameriketako Estatu Batuak) izeneko herriko zentralean istripu handi xamarra gertatu dela eta oraindik berorri buruzko informazio zehatzik ez dagoela? Ez zergatik gertatu den, ez nola gertatu den, ez eta beraren neurri

benetakoa zein den,...

- Ba ote zenekiten Harrisburg inguruetako eskualdeetan, haurdun dauden emakumeak eta sei urtetara heltzen ez diren umeak ebakatu egin direla?
- Ba al zenekiten apirilaren terako guttienez 150.000 (ehun eta berrogeita-mar mila) pertsonak, beren kabuz inguru horietatik hanka egin dutela?
- Ba al zenekiten, hori dela eta etxeak hutsik egonik, lapurketarik gerta ez dadin, sakeo-edo lapurtze-saioetan poliziak hiltzera disparatzeko ordena duela?
- Ba al zenekiten, oraindik ere leherketak batzuek atomikoak, baina leherketak gertatzeko arriskua dagoela?
- Ba ote dakizue, zentrale horren inguruko 3.200 kilometro koadratutako

hedaduran bizi den jende guztia ebakutzeko plana, martxan hasteko prest dagoela?

- Ba al dakizue, zorte txar pixka batekin, ebakuazio-plan horren barnean milioi bat pertsona gutti gorabehera sartuko direla?

- Ba ote dakizue,...

Dena den, hori guztiori ez badakizue, ez zaitezte joan Iberduerora informatzera, badaezpada. Beharbada, adarra jostzera zoaztela uste izango dute eta gaizki hartuak izango bide zarete. Baina,...

Arraroa da, hala ere, horretaz ezer entzuna ez izatea, oraingo horretan informabide guztietan aipatu baita arazoa, gehiago edo gutxiago. Eta jendea enteratu egin denez, hor sortu da eskandalua.

Carterrek berak ere teatro pixka bat egin behar izan du jendearen haserre baretzeko; eta zentralera joan da, nola-bait han ez dela ezer pasatzen adierazteko, egunkariet diotena tontakeria bat dela azaltzeko, jendearengan sor daitekeen izua oso arriskugarria baita. Fraga lribarne etorri zait burura. Gogoratzen al zarete Palomareseko bonbaren arazoaz. Bai, ez da? Nola ez! Espainiako Informazio (eta Turismo) arloko ministroak, bainujantzi izugarri itsusi batekin dena esan behar da- uretara sartu zen telebitako kamaren aurrean, han inolako arriskurik ez zegoela adierazteko... Hipokresia hutsa. Gero bonba atomiko baten bila ari zirela enteratu ginen. No coment! Zenbat gezur eta itxura faltso ez ote den egin behar jendea engainatzeko!

Zoaz beste herrira, han ere txakurrak ortozik

Aipatutakoa, zientzia eta teknikaren paradisuan gertatzen ari da. Konparazioak gorrotagarri omen dira. Baina pentsa-pentsari, Lemoizekoa bukatzera doala konturatu naiz...

Zer egin? Problema hau, beste alde batzu baditu ere, problema politikoa da une honetan. Eta zer diote alderdi politikoek? Erreferentzia bezala, Udal hauteskundeen aurrean esan dutena daukagu. Panorama lainotsua. Alderdi "majoritarioak" ez dira definitzen eta gauzak aurrera joaten uzten ari dira. Errefranak dioena betetzen ari ote da?: «Gero dioenak, bego dio!» Eta ulertzaile onari, hitz gutti.

Ezkerrekoak (HB, EE, EMK-OIC, ORT-PT) aurka agertu dira jarrera nahiko kointzidentetan. Hauxek dira, laburtuz, Lemoizekoari buruz planteiatzen dituzten puntuak:

1. Orain momentuak obrak gelditzea

2. Inbestigazio sakona zabaltzea

- Energia nuklearraren seguritateari buruz
- Lemoizeko proiektuari buruz

3.-Informazioa

4. Aurreko pausoak eman ondoren, alternatiba posible bezala, erreferendua, nahiz eta hau hobeki aztertzea den

Dena den, bitartean obral aurrera doaz. Argumentu hauk erabiltzen dira: Hainbeste diru gastatu eta gero, nola ez dugu martxan ipiniko? Ez ote dugu energiari behar?...

Nik garbi diot: zentrale nuklearrik ez!

Ramon Garai



Dinamarkan ere zentralen beldur.

Honela sartu bide zen Carter Harrisburg-era.



Garapen hitza promozionatu nahiz

Euskara gaurko bizitzara egokitzeko ahaleaginean, zenbait kasutan trabak agertzen dira, inguruko hizkuntzetan oso arrunt diren hitz batzu euskaraz esaterako orduan. Batzutan zail samar gertatzen da euskaratik beratik hitz egokia aurkitzea edo asmatzea, eta kanpotik hartu behar izaten dugu maileguzko hitz bat, nolabait geure fonetika eta izakerara egokituz noski. Hala ere, kasu batzutan, maileguzko hitza bera ere desegoki edo aurkitzen dugu; eta behin eta berriro saioak egiten ditugu zerbait egokiagorik aurkitu arte.

Maileguzko hitz desegoki hori gaur eguneko zibilizazio-hizkuntzan sarri agertzen denean, buruhauste latzak edukitzen ditugu, nola idatz ez dakigularik. Horrelako zerbait gertatzen da, ene ustez, **desarrollo / développement** hitzaren eta beronetik sortzen diren hitzerakarki guztiekin.

Maileguz harturik, bi posibilidad nagusi ditugu, bata espainoletik eta beste frantsesetik hartua:

desarrollo debelopamendu

eta zer esanik ez, hortik sortzen direnak: **desarrolatu, delopatu** eta abar.

Hala ere, eta zehazki zergatik den ez dakidalarik, itsusi gertatzen zaizkigu hitz horik eta era askotako ahaleginak egiten ditugu, horien orde besterik ez —euskaldunagoa, agian— idazteko. Modu honetan, oker ez banago, idazle askok —neu ere tartean naizela— ondoko hitz hau erabiltzen ditugu, nola edo hala aipaturiko maileguzkoak ekiditeko (segur asko, gehiago ere erabili izan dira).

desarrollo	desarrolatu
aurrerabide	aurreratu
bilakaera	aurrebideratu
bilakabide	bilakatu
aitzinamendu	bilakaerazi
aitzineramendu	aitzineratu

aurreramendu	aitzinatu
hazkunde	hazi
hazbide	

Baina zenbait arrazoi desberdin tartean direlarik, hauetariko batek ere ez du benetako onospena lortu eta, errealtatean, **desarrollo** eta beraren erakrriak erabiltzen dira gehien. Arrazoi horien artean ondokoak aipa daitezke:

—hitz batzu luzeegiak dira (**aitzineramendu** kasu) eta gainera ez dira ezagunegiak mendebaldeko euskalkietan. Horrela, erremedioa gaixotasuna baino okerragoa suertatzen da.

—inkonkrezioa dute (**bilakabide, hazkunde,...**), beste zerbait antzeko adierazteko ere balio baitute.

—hitzen familia osoaren arazoa konpontzeko ez dira egokiegia (nola esan, **desarrollado, subdesarrollado, superdesarrollado, en vías de desarrollo,...**).

—beharbada, fonetikoki ez dira atseginegiak euskal belarriarentzako; bortxatu-itxura edo hartzen zaie.

PROPOSAMEN BAT

Aurrekoetan irtenbide egokirik ikusten ez dudanez, beste proposamen bat eginen dut. Beharbada, praktikarekin, berau ere baztertua izanen da; baina hori jakiteko, arriskua korritu beharko da eta publikoki idazleen artean aurkeztu beharko da. Hitz hau erabiltzeko ideia, liburu baten izenburuak eman zidan: “Euskera erro eta gara” delakoak prezeski. Baserritarrentzat ezaguna omen den azken hitza —**gara** delakoa— niretzat berria zenez, hiztegiatara jo nuen eta beste zenbait esanguraren artean hauek aurkitu nituen.

gara: a) idea de elevación; idée d’élévation.

b) desarrollo de la vida; développement de la vie.

garatu: renovar, echar escapos (se dice de plantas); pousser, taller (se dit en parlant des plantes).

Bi hitz hauek ideia eman zidaten zabalkuntza edo lerrakuntza semantiko posible bat kontsideratzeko. Zergatik ez, hitz honen deribatuekin **desarrollo / développement** hitzaren familiakoak presta? Eta pentsatu eta egin, modu honetan ondoko hitz-multzoa moldatu nuen. Eta berau da, orain proposamen gisa idazleen hausnarpenerako aurkezten dudana:

garapen (iz.): desarrollo; développement
garatu (ad.): desarrolar; développer
garatu (adj.): desarrollado, a; développé, e

Eta modu berean moldatzen dira beste hitz hauk: **azpigarapen, azpigaratu, supergarapen, supergaratu, hipogarapen, hipogaratu, garabide, garabidetu,...**

Ene eritzian, horrela egiteak ba ditu bere abantailak; ondokoak adibidez:

—Sonoritatez, hitz polita da, euskal fonetikaren arauerakoa, eta ez da luzezia. Euskaldunen belarriarako estetiko da. Eta arrazoi hau frogatzea erraza ez bada ere, ene ustez, hitz bat edo beste hautatzean, subkontzientearen arau estetikoek ere zerkusirik ba dute.

—Bestalde, hitzen familia osoa erraz eta argiro presta daiteke.

—**Garaipen** hitzarekin duen antz fonetikoak ere lagun dezake, etimologia faltasuren bat sortzeko bidea bada ere.

EGOKIA OTE?

Emandako arrazoiak desarrazoia frogatzeko direla esan dezake batek baino gehiagok. Hala ere, nik neuk nahiko egokia izan daitekeela uste dut. Eta asko erabiltzen den hitz bat denez, irtenbideren bat eman behar zaio.

Hizkuntza biziak etengabe hitz berriak sortzen eta egokitzen ari dira, bestela hilak baitira. Hona, ba, beste saiotxo bat. Orain lerro hau irakurri dituzuen idazleok duzue hitza. Gustura hartuko nituzke kritikak eta eritziak.

J. R. Etxebarria

24.

1	O	2	G	3	I	4	T	E		5	K	6	A	7	I	8	N		9	B	10	I	11	O											
12	H	A	R	O					13	G	O	I	Z	E	14	G	U	Z	K	15	E														
16	E	L	A			17	G	O	R		18	P	O	R	R	A									Z										
	D			19	A						20	T	A						21	D	E	22	D	E											
23	Z	A	P	I	A	K	H	A	R	24	A								25	I	R	A	N												
26	A	K		T		O					B			H				27	N	A	N	A													
28	Z	A	R	A	29	E				30	E	P	O	K	A	K								H											
32	P	O			33	D	E	T							34	Z	E	R			35	B	A												
	I				36	P	O	T	X	I	N				37	K	A	I	M	A	N														
38	A	B	A	N																				R	D										
41	K	I	T	O						42	R	A	T	S	E	U	R	I																	
43	B	O	A	S						44	A	I	Z												U										
	A				45	T	I			46	K	I			47	M	E	N							U	T	Z								
52	H	A	I	L	A	N				53	D	I	A														E	K	I	A					
										54	S	O	D	A																	E	R	O	A	N

25. ZENBAKIA

LUZETARA: 1—.....Farrow, aktriz. 4—Euskal hiriburu bat. 9—Txina-ko leader zena. 12—Athletic-en atalzaina. 14—Euskal demonio. 16—Garbitzeko zapi. 17—..... izan (ihardun). 19—Eder, galant (ipar aldean). 20—Entzun ezin daitekeen. 21—Atzizki plurala. 22—Zelanda Berria (ingelesazko inizialak). 24—..... de mar (itsas-jo). 25—Gehiegi. 26—Gonazalea. 29—Euskal sindikal talde bat. 31—'Gabe' adierazten duen aurizki. 32—Nobela. 34—Erdizki kausatiboa. 35—Aintzina-ko greziar merkatulekua. 36—Ahuntzak uxatzeko oihu. 38—Zazpiak 39—Radio (symbolo khimiko). 40—Musu (haurren hitza). 41—Kulpa. 45—Zenbat erhi dituzun. 47—Atzizki datiboa. 49—Itsa-so ondoko laku txikiak. 51—Jauna (gastelaniaz). 52—Garaietarik bat. 54—Desertuko leku berdeak. 55—Txinako edaria. 56—Ikara. 58—Adjektiboak egiten dituen atzizki. 59—Atzizki partitiboa. 60—Indiako herrialde; lehenago portugaldar kolonia zen. 61—Akometatu. 63—Euskadi Hil! 65—Behera joan (bizkaieraz). 67—Eldarnioa. 69—Anaitasuna-ren komikia. 70—Atzizki superlatiboa. 71—Zadorra hibaiko herri. 72—Mahai (gizukeraz).

GOITIK BEHERA: 1—Gatua deitzeko oihu. 2—Pasatu. 3—Euskaldunen aita. 4—Lama. 5—Gizonezko. 6—'Jarraitzailea' adierazten duen atzizki. 7—Berlinguer-en herria (laburpena). 8—"Guk euskaraz, zergatik ez?" 9—Ormirudi. 10—Txindoki-ren mendizerra. 11—Mendi baten beheko parte. 13—Taberna. 15—Uncle USA-ren pertsonifikapena. 17—Amaitu (ininitiboa). 18—Norbaitek, esaldi negatiboetan. 21—Armiar-maren lanak. 23—Lan arinak. 25—Euskal symbolo. 26—Kristauen aurreko hilobiak dituen Bizkai-ko herri. 27—Suak egiten duena. 28—Gurasoak. 30—Ka! (2 hitz). 32—Adibidez (latinez). 33—Atzizki instrumental singularra. 35—Borta. 37—Niloa-ren kontinentea (laburpena). 43—Atzizki alatiboa. 44—Emakume zaharra. 45—Seta, itsukeria. 46—Atzizki ergatibo singularra. 48—Maite kantaria. 50—Punta. 51—Ipar aldeko ikastolen antolakundea. 53—Kanpoko parte. 55—Tribu baten simbolo. 57—Maiz, askotan. 60—"Ez gure odol beroa..." 61—Hitz. 62—Zakurra. 64—Ama pelikula. 65—Lehenago lan, gero 66—Partikula kargatua. 68—Zilar (symbolo khimiko). 69—Atzizki adberbial.

25.

1	2	3		4	5		6		7	8		9	10	11
12			13					14			15			
16					17		18		19					
		20			21		22	23		24				
25				26			27			28		29		30
31			32								33		34	
			35					36				37		
38				39					40				41	
			42	43		44		45			46			
47	48		49			50							51	
52		53		54								55		
		56		57		58			59			60		
61				62		63	64				65			66
67				68							69			
70													72	

ARDIBELTZA



telebistako programak

Bizkaitarkeriaren denborak urrun geratu ba zaizkigu ere, politika mailan behintzat, beste gauza askotan, batzuk horri segitzen diote oraindik jo eta ke. Telebistan, presentatzaile edo edasle analfabetoak aurkeztea, txapuzakeria bat besterik ez dela uste dugu. Norberak bere postua gorde nahi baldin badu orain, pentsa dezala denbora asko eduki duela euskara ongi ikasteko eta egin ez badu berak jakingo du zergatia. Ez gara gu zorionez gure diglosiaren errundunak baina honetan ere minimo dexenteak ba daudela pentsatzen dugu eta minimo dexente hori Uriarte Jaunak ez du betetzen. Uste dugu berak erabili nahi duen euskara bizkaiera dela, baina ez gaude hain seguru, zeren ez baitugu uste eman gaituzte eta beste bitxikeria asko bizkaiera direnik. Berak erabiltzen duen mordoiloa bizkaieraren titulu emanik ere, oso gaizki edo txarto iruditzen zaiguna zera da, Euskal Herri osorako den programetan, informazioetan betez ere, euskalki berezi bat eta bakarrik erabiltzea. Ez dugu ezer euskalkien kontra, are guttiago, tratamendu berezia behar dutela masa komunikabideetan uste baitugu baina hori beste arazo bat da. Hala ere, erdaraz dena ez egiteagatik, hobe behintzat, oraingoa, baina minbizia ez da aspirina zaharrez osatzen.



Has zaitez gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko projekzio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitzen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongiegi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago.



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.



**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**

